

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 13a / 743. zenbakia



Bai Udalatxeko ordezkariak gogora ekarri zuten askotariko elkarte, sindikatu eta alderdiek osatzen dutela plataforma hori.

INGURUMENA/ Udalatxeko harrobiaren kontrako ekimenak

Herritarren partaidetzaren beharra nabarmendu zuten

UBANE MADERA

Udalatxeko harrobia dela-eta, prentsaurrekoa egin zuen martitzenean egitasmo horren aurkako plataformak. Besteak beste, azaldu zituzten proiektuaren kontrako mozioa Udalean aurkezteko arrazoiak eta batzar hartako istiluen-gandik bereizi egin ziren.

Prentsaurrean salaketa dezente egin zituen Bai Udalatx plataformak. Bestek beste, plataformako kide Javier Abalde salatu zuen alkateari orain dela urtebete eskatu ziotela Udalatx barruko harrobiaren gaineko informazioa eta oraindik ez dute-la erantzunik izan, nahiz eta legeak babestu informazioa eskuratzeko eskubide hori. Salatu zuten, baita ere, orain arte PPK eta PSE-EEk bakarrik onartu dutela plataformarekin batu eta gaiaren gainean berba egitea. Salatu zuten Udalak harrobien alde egin duela herritarren alde egin beharrean eta salatu zuten, baita ere, Udala Agenda 21, Aalborgh-eko Gutuna eta halakoak sinatzen dabilen bitartean, Udalatxeko harrobia moduko proiektu "jasangaitza" egin dabilela.

Udalatx mendiari dagokionez, berriz, haren aberastasun ekologikoa nabarmendu zuten; mendi barruan dauden ur-erreserben garrantzia aipatu zuten eta haiek galtzeko dagoen arriskua. Eta mendiaren garrantzi sinbolikoa ere azpimarratu zuten: "Mendi enblematikoa da guztiontzat".

Horrez gainera, salatu zuten Gipuzkoako 15 harrobietatik hiru Arrasaten daudela, lau Udalatxekoarekin. Larregi iruditzen zaie eta hori dela-eta, eskatu zuten harrobien balizko kokalekuen ikerketa egin dezatela erakundeek. Eta, Udalatxeko harrobiaren beharra zalantzan ipini zuten.

OSOKO BILKURAKO ISTILUAK

Bestalde, abendu bukaeran, Udalatxeko harrobiaren kontrako mozioa aurkeztu zutenean sortu ziren istiluak direla-eta, esan zuten

**Urtarrilaren 20rako
kale agerraldia
deitu du Bai
Udalatxek, 19:30ean,
Herriko Plazan**

plataformak ez duela zerikusirik: "Bereizi egiten gara; gainera, geu izan gara istilu horiengatik kalte gehien jasan dugunak. Ez dugu istilu haiek guri leporatzerik nahi".

'ALKATE EZ-DEMOKRATIKOA'

Horren harira, gogora ekarri zuten osoko bilkura hartan alkateak ez zuela nahi izan ezta mozioa eztabaidatzerik ere. Horregatik zalantzan ipini zuten alkatearen izaera demokratikoa.

Bestalde, aldarrikatu zuten halako proiektu erraldoi baten aurrean, herritarrek euren iritzia emateko eskubidea izan beharko luketela: "Erabakitze gaitasun eta eskubidea izan beharko luke".

MOBILIZAZIOAK ETA ELKARRIZKETAK

Aurrera begira, berriz, mobilizazioak iragarri zituzten: urtarrilaren 20an, 19:30ean, kale agerraldia deitu dute, Herriko Plazan izango da. Herritarrei informazioa ematen jarraituko dutela ere esan zuten eta erakunde publikoak erabiltzen ahaleginduko direla. Hala, jakinarazi zuten Jaurlaritzako Ingurumen sailburu Esther Larrañaga arrasatearrari gutuna bidaliko diotela, eta Iñigo Lamarka Arartekoarekin elkarrizketa izaten ahaleginduko direla.

Oraingo astean eman ditu Ibai-Artek zozketako sariak

U.M.

Pozik hartu dituzte Maria Luisa Elizburuk, David Artzamendik eta Mila Madinabeitiak Ibai-Artek emandako sariak. Gabonetako kanpainari dagozkion sariak dira.

Zapatuan egin zuen zozketa Ibai Arte merkatarik elkartek, Herriko Plazan. Hala, Mediterraneoan zehar zortzi eguneko itsas bidaia

Maria Luisa Elizburu arrasatearrak zuen txartel bati tokatu zitzaion. 500 euroko erosketa txartela, berriz, David Artzamendi arrasatearrari egokitu zitzaion. Eta Gatzagako txaboletan asteburuko egonaldia Mila Madinabeitia oñatiarrak eraman zuen. Lehenengo eta hirugarren sariak Casa Ceciaga saltokiak eman ditu. Bigarrena, berriz, JG Inpresio Digitala saltokiak. Eguaztenean eman zituen sariak Ibai-Artek.



Maria Luisa Elizburu eta David Artzamendi, sariak hartzen Casa Ceciagan.



18/98 epaiketaren kontra eta Landaren alde

Eguaztenean zenbait herritar plazan elkartu ziren 18/98 izeneko sumarioa eta Madrilen egiten dabilzan epaiketa salatzeke. Hain justu ere, sumario horren barruan Natale Landa arrasatearra inputatuta dago, eta bereziki, hari elkartasuna erakustea izan zen agerraldiaren helburua. Natale Landa bera ere izan zen plazan. Epaiketarekiko oso ezkor azaldu zitzaigun. /U.M.

Zerbitzu eta prezio berriak izango ditu laster autobus urbanoak

U.M.

Urtarrilaren 16an abiaraziko dute urbanoaren zerbitzu berria. Arrasatetik Atxabalperainoko ibilbidea egingo du, tartean Arimazubin eta Garagartzan geratuta. Bestalde, txartelaren prezioak eguneratu egingo dituzte urte berriarekin batera: billete arrunta euro bat eta bonobusa 0,58 euro.

Hasteko, bi hilabeterako ipiniko dute Arrasatetik Atxabalperainoko zerbitzua, proba moduan. Eta erabiltzaile nahikoa izanez gero, aurrera egingo du.

Urbanoaren zerbitzu hori arratsaldez bakarrik izango da; 16:45ean aterako da Garibai etorbidetik (Abaroa aurrean) eta geratuko da Arimazubin (San Viator txikiko eliza ondoan) eta Garagartzan (auzoko eliza ondoan).

Zerbitzu hori izango da erabilgarri, batez ere, Mondra Futbol Taldekoak entrenamenduetara eta joateko. Baita Garagartzako auzotarrendako ere. Hala, Udalak Mondrakoekin berba egin du zerbitzu horrendako ordurik egokiena aukeratzeko.

Zerbitzu hori ipintzeko arrazoia zera da: urbanoa kudeatzen



Urbanoak Arrasatetik Atxabalperainoko ibilbidea egingo du urtarrilaren 16tik aurrera.

duen Leintz Garraioak enpresa zorretan dela Udalarekin, 21:00etan izaten zen zerbitzua kendu egin zutelako. Hori konpentsatzeko ipiniko dute zerbitzu berria.

PREZIO BERRIAK

Eta zerbitzu berriaz gainera, urtarrilaren 16tik aurrera, 2006ari dagozkion prezioak indarrean sartuko dira. Horien arabera, bono-

busa KPIren araberrako igoera izango du (%3,5): 0,52tik 0,58ra. Txartel arrunta, berriz, apurtxo bat gehiago igoko da: 0,85etik euro bateraino.

BONOBUSAK NON ESKURATU

Txartelak bezala, bonobusak eros daitezke autobusean bertan edo Leintz Garraioak enpresaren bulegoetan eta Udaltzainguan.

Aritz Arrieta: gazte sozialisten ordezkari berria Arrasaten

U.M.

Joan den astelehenaz geroztik, PSE-EEK Olarte kalean duen egoitzan da Aritz Arrieta; Arrasateko gazte sozialisten idazkari nagusi izendatu dute-eta. Baita Euskadiko Gazte Sozialisten Komiteko kide ere.

"Gogo handiz" ekingo dio lanari Aritz Arrieta arrasatearrak. Esan digunez, Arrasaten eta ibarrean gazte sozialisten duten ordezkari bakarra da bera orain; hala justu kide berriak lortzea izango du zereginetako bat: "Gure afiliazio kanpainaren helburua horixe izango da; gazte gehiago aurkitzea eta ibarrean euskaldun sozialisten elkartea handitzea".

Azken urteotan hutsik egon den lekua beteko du Aritz Arrieta: "Orain arte gauzak geldi egon dira arazo handiak izan ditugulako Arrasaten eta bailaran; hiriburugan lan egitea askoz errazagoa da. Baina orain, momentuz behintzat, gauzak lasaitxoago daudenez, berriro ere ekingo diogu utzitako lanari".

UDALAREKIN KRITIKO


Bereziki, etxebizitzaren eta lanaren egoerak kezkatzen dutela esan

digu Arrietak eta horiek izango dituela lan ildo nagusiak. Zinegotziaren estu lan egingo duela ere esan digu: "Eurei islatzeko gazteen eta herritarren arazoak".

Bestalde, oso kritiko azaldu da Arrasateko Udalak egiten duen politikarekin: "Uste dugu itsuak direla eta aldaketarako sasoia iritsi dela. Aurrera egiteko tresna asko ditugu geuk. Hurrengo hauteskundeak ere hortxe daude eta beti izan ditugu bestelako alderdi batzuk baino boto gehiago; hala uste dut hurrengo hauteskundeetan alkate sozialista izango dugula. Gure zinegotziak orain ahal dutena egiten dute Udalean, EAJk, betiko moduan, bere boterea ezarri egiten duelako eta ez duelako aukerarik uzten beste alderdiek lan egin dezaten."

BIOGRAFIA APUR BAT

Aritz Arrieta Arrasaten jaio zen orain 28 urte; Enpresa Administrazioa ikasketak eginda ditu. Orain bi urte sartu zen politikagintzan, Gasteizen, Unidad Alavesa alderdiaren idazkaria izan zen Legebiltzarrean eta PSE-EErekin harremanak sendotzen joan zen gero. Orain, Arrasaten izango dugu gazte sozialisten idazkari jardunean.



Arrieta PSEren egoitzan izango da 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

LABUR

Mesedeetako Amaren loteria non kobratu

Mesedeetako Andra Mari ikastetxeko DBHko laugarren mailako jakinarazi digute Gabonetako Loteriako saria eskolan bertan kobra daitekeela. Astelehen edo martitzenetan joan daiteke kobratzera, 16:30etik 18:30ak bitartean.

Tratu txarren gaineko hitzaldia egingo dute datorren eguaztenean udaletxeko aretoan

Arreta ematea eta abegi (harrera) egitea tratu txarrak izandako emakumeei. Horixe da datorren eguazteneko hitzaldiaren izenburua. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan berba egingo du Mertzxe Artzak. Tratu txarrak izandako Iruñeko Abegi Etxeko zuzendaria da hura. Hitzaldia, esandako moduan, datorren eguaztenean izango da, 18:00etan. Arrasateko Udaleko Berdintasuneko Sailak antolatu du ekimena, besteak beste, tratu txarren gaineko hausnarketa bultzatzeko.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Katalde Industrialdea 5. pabilloia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

2006ko aurrekontuaren ia erdia inbertsioetarako bideratuko dute

IVANE MADERA

10.761.258,86 euroko aurrekontua izango du Udalak 2006rako. Aukeak, berriz, 15.561.561 eurokoa eta Iturbide Egoitzak 2.220.818 euroko aurrekontua. Abenduaren 15eko osoko bilkuran onartu zituzten aurrekontuok, oposizioaren (PSE-EE eta PP) kontrako botoekin.

guztira, 42.939,21 euroko aurrekontua izango du Arrasateko Udala eta udal erakundeek 2006rako. Horien artean %8,8 handiagoa. EPI baino gehiago handitu da, beraz. Handitze horren arrazoi nagusia da inbertsioetarako kopurua ere handitu egin dute. Horrez gainera, aurten bukatutako diren proiektuak ere aurrera eraman dituzte 2006ko aurrekontuan: urteko lur azpiko parkinga eta



Aurrekontuetan jasotakoaren arabera, aurten bukatuko dute kultura etxea.

haren urbanizazioa, kultura etxea, herritarrendako arreta bulegoa (Portaloikoa) eta Musakolako erretiratuaren egoitza berria, esaterako.

DIRU-SARRERA GEHIAGO

Diru-sarrerari dagokionez, berriz, 2006ko aurrekontuak %8,8 gora egin duen bitartean, aurtengo sarreraren aurreikuspena iazko azken kopurua baino %11 handiagoa da. Gorakada nabarmena

izan dute Hirigintza Saileko diru-sarrerak, eraikuntza zergek, esaterako; horiek izango dira zutabe nagusietako bat Udalaren gastuen finantziazioan.

Iazko aurrekontuari dagokionez, esan liteke ondo bete direla aurreikuspenak, besteak beste, diru-sarrerak espero baino zerbait handiagoak izan dira eta zerbait alorretan. Honenbestez, Arrasateko Udalak iazko zama barik hasiko du urte berria.



'Manu' Uriarte gure oroimenean

Hilaren 4an hil zen Manu Uriarte (60 urte). Azken sei urteotan Santa Marinako Toki Argi erretiratuaren elkartearen presidentea izan da, eta kantuan ibiltzen zen parrokiako abesbatzan. Toki Argik Tenerifera egin behar zuen bidaiari suspenditu egin du. Hutsune handia utzi du Manu-k. Dolu minak, Blanca emazteari. Parisen egindako argazkian, Manu da ezkerrean dagoena. /I.B.



Arrasateko
euskalgintza

Herritarrei begira egiten duten lana indartuko dute

U.M.

Arrasateko Euskalgintzak batzar orokorra egin zuen abendu amaieran. Besteak beste, orain artekoaren balantzea egin zuten eta aurtengo asmoak adostu zituzten. Bestelakoan artean, jakinarazi zuten kide berria dutela: Eskola Politeknikoa. Orain arte moduan, gurasoekin lanean jarraituko dutela ere esan zuten.

Euskalgintza, proiektu moduan, badabil norabidea hartzen. Hori-ze izan zen abenduko batzarrean ateratako ondorioetako bat. Itxaro Artola dinamizatzaileak adierazi digun moduan, "hemendik aurrera kanpora begira lan gehiago egingo dugu". Horren harira, zenbait lehentasun fin-ka-tu zituztela jakinarazi digu: "Kanpora begira ezagutzera ematea Euskalgintza. Batzuek bada-kite hiruzpalau urte darama-tzagula lanean, baina ez da oso ezaguna". Hala, besteak beste, Euskalgintzaren egitasmoak herritarrek bereganatzea izan-go dute helburuetako bat.

Beste erronka garrantzitsu bat izango da Arrasateko Uda-lak bultzatutako Euskara Bizi-berritzeko Planarekin batera jardutea: "Urteko lehenengo hilabeteetan aurreikusten da plana bera diseinatzea eta uste dugu zeresan handia izan behar-ko genukeela. Espero dugu Uda-larekin elkarlanean diseinu horretan parte hartzea eta bere garapenean ere bai".

Horrez gainera, beste erron-ka bat izango da Euskalgintza-

ren lan ildoei lotuta sortuta dau-den lan-taldeekin jarraitzea: "Lan-taldeen hartu dute bakoitzak bere bidea; orain, hainbat egitasmo badituzte. Esaterako, lan ildo inportante bat izango da euskaldunei euskaraz bizitzeko dauden aukerak ezagutzera ematea eta berriak sortzea". Itxaro Artolak, esaterako, aipatu zuen askotan kexatu egiten garela eguneroko jardunean ezin dugu-lako euskara erabili: "Lan-talde bat badugu, Erasoak izenekoa eta horren helburuetako bat izango da eguneroko bizitzan arazoak ditugunean euskaraz jarduteko, egoera horri buelta ematen saia-tzea. Eta horren kontrako ber-tsiaio izango litzateke berez badi-tugun aukera horiek eta erabil-tzen ez ditugun horiek ezagutzera ematea; adibidez, errenta aitor-pena euskaraz egitea, kutzazai-netako txartela euskaraz izatea edo ordenagailuko prestazioak euskaraz izatea". Egingo dituz-ten beste zereginetako batzuk ere esan zituen, esaterako, merka-tariei erakutsi loteria euskaraz eman dezaketela eta Bake Epai-tegiaren erabilera euskaratzea.



MIKEL LUPIAÑEZ

Besteak beste, Asisko Urmeneta ekarri du Euskalgintzak Arrasatera.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 13**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 14**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 15**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 16**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 17**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 18**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUENA, 19**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 20**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelheenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelheenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaraz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaraz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaraz)
Uribarri parrokia	San Isidro
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaraz)
Domeka 12:00 (elebiduna)	

OHARRAK

TRATU TXARRREN GAINEAN
Eguaztenean, hilaren 18an, Mertxe Arzak Tratu txarrak izandako emakumeei arreta eman eta abegi egitea berbaldia egingo du osoko bilkura aretoan. 18:00etan izango da, eta Udaleko Berdintasun Sailak antolatu du. Arza da tratu txarrak jasandako emakumeendako Iruñeako Abegi Etxeko zuzendaria.

BEN LEE, AMAIA ANTZOKIAN
Bihar, zapatua, Ben Lee bakarleri australiarren kontzertua Amaia Udal Antzokian, 20:00etan. Pop doinuak eskainiko ditu.

DIKERS, 3.60 ARETOAN
Bihar, zapatua, Dikers eta Cool Panic taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan.

KONTZERTUAK, GAZTETXEAN
Gaur, egubakoitza, Lor eta Kasu taldeen emanaldiak; eta bihar, zapatua, Piztiak taldearen kontzertua. Biak hala biak 22:30ean.

GIMNASIAKOEN LOTERIA
Dragoi Gimnasia Taldeko arduradunek jakinarazi digute gimnasia erritmikoa-ren taldeak saldutako loteriak saria izan duela. Saria hartzeko Kutxara jo beharko dute bihar, zapatua, aurretik.

AEDrenAGENDA

SEASKA ETA DEBAGUNE
Seaskak eta Debagunek argitaratutako egutegiak salgai daude AEDn. Debaguneko, urtero moduan, ibarreko argazki zaharrekin apainduta dago.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Ekon musika taldeak maketa kaleratu zuten

Yagok, Jonek, Xabierrek, Ibanek eta Iñigok Ekon taldea sortu zuten. Bost kantuko maketa grabatu zuten eta Egintxotz lehiaketan esku hartu zuten. Gutxiatik ez ziren lehiaketan sailkatu, baina hortik aurrera ibilbide arrakastatsua egin zuten, eta hainbat disko kaleratu zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ziburu"



Kolonpixo esaten hasita dago gaurko haur eta guraso asko. — Aitta, guazen ziburuan ibiltzera.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Astean egin ditu urteko lehen ibilbideak Arrasate Irratiko autobusak

Gabonetako oporraldiaren ostean, indarberrituta abiatu gara uhinetan barrena, 2006ak orain arte emandakoak kontatzeko prest. Horrela bada, beharpetan dendaz dendara ibili gara; tabako-denda, akademia, taberna eta farmazietara ere hurbildu gara erretzearen kontrako legeak eragin dituenaren gainean galdezka. Orion ere izan gara, han bizi da-eta Benito Lertxundi. Gaur Eskoriatzan izango zela agindu zigun oriotarrak.

Baina iazko lagunekin ere elkartu gara, besteak beste, Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiarekin, eta autobuseko balkoiak pentsamendu lorekin atontzen lagundu digu.

DATORREN ASTEAN, SAGARDOTEGIRA
Goian aipatutakoaren laburpena asteburuan izango duzue berriz ere entzuteko aukera. Datorren asterako, berriz, Iturrieta sagardotegian lekua hartuta dugu. Gurekin etorri gura baduzu, *Igo Autobusera!*

HAUGIROA!

ASTEKO MINIMA Martitzena, 10	3°C
ASTEKO MAXIMA Domeka, 8	12°C
ASTEKO EURIA (Bataz beste. L/m ²)	33 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 4	9°C	5°C	19,8 l/m ²
Eguena, 5	9°C	7°C	4,7 l/m ²
Egubakoitza, 6	9°C	4°C	— l/m ²
Zapatua, 7	10°C	5°C	0,4 l/m ²
Domeka, 8	12°C	6°C	1,8 l/m ²
Astelehena, 9	8°C	7°C	6,6 l/m ²
Martitzena, 10	11°C	3°C	— l/m ²

Erdialdean jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratua.
Benito Lertxundi, abeslaria; Marian Zabarte, botikaria; Joseba Ugalde, ingurugiro saileko zinegotziarekin olio batzeko ontziak berbagai; Lorategiaren geltokian, pentsamenduak berbagai...
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratua.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landu).
Elkarriketak.
Meteorologiaren geltokia (Peio Zabala)
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

KALEINKESTA/ Igerri dozu tabakuen kontrako legie?



ELI MENDIZABAL
Lagillie



AMAGOIA AGIRRE
Langillie



NEREA ORIA
Langillie



ARITZ ARREGI
Langillie



JAIRO ALVAREZ
Langillie



LOLI ZEZIAGA
Langillie

Tabernetan eta jatetxietan igerri dot gehixenbat. Ondo pentsetan jat lege hori, bai-
nie konturaketa naz prohi-
bidu egin biher jakula zer-
bait errespetau ahal izete-
ko, hori da tristiena.

Neu erretzaillie naz, eta lanien igerriko dot ezin dala erre, kanpora juen biherko nazelako. Umiendako-eta ondo pentsetan jat, kafeterixetan eta holakuetan ezin dalako erre.

Neu erretzaillie naz, baiñe lanien lehenautik geuken erabakite bertan ezin dala erre. Donostian igerri dot lege hori gehixau, baiñe Mondraguen ez horrenbeste. Ondo pentsetan jat.

Kalien ez da igerten. Neu ez naz erretzaillie, eta lege hori ondo dau. Lanien be ezin da erre, eta horrekin be konforme nau. Erre egin gure dauenak kanpuen egin daixela.

Neu kalien ibiltten naz lanien, eta baita tabernetan be, garbiketa lanak egi-
tten. Eta konturetu naz hainbat lekutan tabakuen makiñak kendu egin daue-
la. Hortik aurrera...

Askorik ez dot igerri, neu ez naz-eta tabernetan eta hola-
kuetan ibiltten. Dendan ige-
rri dot lankide batzuk kan-
pora urten biher dauela erretera. Lege hori gogo-
rreixe dala uste dot.

USTEAKUSTE

TXALOAKETATXISTUAK

Bilkurak

Ez nintzen azkeneko osoko bilkuran egon. Egia esán, ez naiz aspaldi Arrasateko osoko bilkura batera joan. Eskoriatzakoetara joaten naiz lan kontuengatik. Hala ere, ez zait egokia iruditzen osoko bilkurak lanegunetan 09:00etan egitea. Hala idatzi nuen erabaki hori hartu zutenean, eta hala pentsatzen jarraitzen dut. Oso herri gutxitan egiten dira halako orduetan, eta ezer gutxi onik esaten du hori erabaki zutenekiko. Helburua, itxuraz, oso argia da: herritarrek osoko bilkuran esku hartu edo egon ezin daitezkeen ordutegian bilkura egitea.

Bai, gaitza izango da herritarren eskaerak eta kexak entzun behar izatea, baina politikariak gure kontu bizi dira, eta herritarrek entzutea eta, ahal den heinean, kontuan hartzea euren egimbeharrak da, garrantzitsuenetakoa gainera.

Hortaz, politikariei osoko bilkuran arrautzak botatzea lekuz kanpo dagoen arren, penagarria da zinegotziek hainbat herritarren eskaerei bizkarra ematea eta eztabaidatzeko aukerarik ez ematea. Udalatx barruan harrobia egitearen aldekoak badira, besteetan iritziak entzun, eztabaidatu eta azalpenak eman ditzatela. Politikariak inori kontuak eman behar ez dizkiote-
la uste dute. Oker daude.



TXALOAK BARRAKAK ETA TXURRO-DENDA SEBERREN Erdigun-
nean bizi diren arrasatear batzuek esan digute poztu egin direla Seber Altuben barrakak eta txurro-denda jarri dituztelako. Joan den urtean, txurro-denda Seber Altuben jarri zutenean ere hala aditzera eman ziguten. Euren ustetan, "plaza aldatu zutenetik oso hutsik gelditu da, eta merezi du horrenbeste jende batzen dituen plaza horri tarteka erabilpen handiagoa ematea". Seguruenik, erdiguneko ume eta gaztetxoek ere gustura hartuko zuten aldaketa.

ASTEKODATUA

6

EUSKALDUN ZAHAR DABILTA ZAHAR BERRIN

Zaharberri elkarteak jakinarazi du sei euskaldun zaharrek baka-
rrik esku hartzen dutela euren ekimenetan. Euskaldun berri askok jotzen dute elkartera euskara praktikatzeko aukeren bila, baina oso euskaldun zahar gutxi eskaintzen dute laguntza.

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Urte berrian, eskubideen globalizazioa

Pertsonak gara, ez gauzak, ezta ere lana egiteko tresnak. Pertsonak gara eta eskubideak dauzkagu. Duintasuna daukaten izakiak gara. Eta ez gara hiritar-
zenbakiak soilik; herriak ere gara. Pertsonak eta herriak gara, eta eskubide indibidual eta kolektiboak ditugu.

Ezagutzen ditugu mundu mailako kapitalismo inperialistari dagokion globalizazioak dakartzan hodei beltzak. Asian bildutako lan-
indar kopurua historian bildutako handiena da, eta multinazionalen eskuetan dago ekar dezakeen erregresio soziala. Herri txiki eta indigenen aurkako ukapen politikoa eta kulturala; "terrorismoa"-ren aurkako gerrak dakartzan demokraziaren suntsipena eta terrorearen inposaketa; inperialismoak ezarritako askatasunik gabeko gizartea. Klimaren aldaketak, tsunamiek eta lurrikarek bidaltzen diguten mezua. Hemen, gure artean, jaun eta jabe den txikizio ekologikoa,

18/98 epaiketak bideratzen duen terrorea, marjina-
tuen egoera latza, frankismotik datorren erresistentziak sufritzen duen apartheid, presoekiko sakabaketa lotsagarria, euskararen bazterketa eta zapalketa, gazteen lan prekarioa eta etxebizitzarako eskubide eza.

Urte bukaerak itxaropena dakarkigu. Evo Moralesen garaipenaren atzean, nazio indigenen aukera dago. Bost gizaldietako genozidioa irauli nahi duen ezkerria berria. Irakeko erresistentziak, azakerria eta hipokresia astinduz,

"erresistentziarako eskubidea", zapalduen giza eskubideen lehena dela gogoratu digu. Frantzesek eta Niderlanderrek kolokan itxi dute Europako konstituzio-egitasmo beldurgarria. Eta gu euskaldunok, kapitalismo garatuaren bihotzean, autoantolaketa eginez eta eskubideen bandera eskuratuz ziklo berriari aurre egiteko prest gaude. Globaliza ditzagun pertsonen eta herrien eskubideak, guztiak eta denendako.

"Autoantolaketa eginez eta eskubideen bandera eskuratuz, ziklo berriari aurre egiteko prest gaude euskaldunok"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundinano
Imanol Ertza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñzarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK
Mikel Lupiañez

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



GOIENKARIA

Arrasateko taldeko kategoria guztiek omenaldi hunkigarria egin zioten joan den urtean Jesus Mari Herrerori.

ESKUBALOIA/ Bidasoa Irunek eta Arratek lagunarteko norgehiagoka jokatuko dute bihar

'Pitxi' Herreroaren omenez Asobal mailakoak Iturripen

XABIER URTZELAI

Arrasate Eskubaloi Taldeak lagunarteko norgehiagoka antolatu du, taldearendako horrenbesteko lana egin zuen Jesus Mari Herrero gogoan izateko. Horretarako, Asobal Ligan dabilzan bi talde izango dira bihar Iturripen.

Bidasoa Irunek eta Arratek neur-tuko dituzte indarrak bihar, 18:15ean hasita. Europako Txapelketa dela-eta, Asobal Ligak geldialdia izango du urtarrilean, eta hori aprobetxatuta antolatu dute Arrasateko Eskubaloi Taldekoek

lagunartekoa. Hala, antolatzaileek norgehiagoka parekatua aurreikusten dute, Ligan ere bi talde horien artean indarrak pare parean daudelako. Arrate zortzigarrena da sailkapenean, eta bederatzigarren lekuan dago Bidasoa, puntu berdinekin (13). Horrekin batera, talde bakoitzeko bina jokalaririk joan dira euren selekzioekin jokatzerara, baina gainontzekoak Iturripen izango dira.

SASKIBALOIA, MUSAKOLAN

Mugarri Alkesa Arrasate Saskibaloi Taldeak Musakolan jokatuko du bihar arratsaldeko nor-

gehiagoka (18:00). Igoera fasea ondo hasita (joan den astean mendean hartu zuten Zornotza), Arrasateko taldeak txapelketako talde indartsuenetako baten kontra neurtuko ditu indarrak, Askartzaren kontra, hain zuzen.

FORD MUGARRIKOAK, USURBILEN

Arrasate Eskubaloi Taldeko nagusiek Usurbilen jokatuko dute bihar arratsaldean (17:30). Domekan jokatu gura zuten, baina ez da posible izan. Sailkapenean bigarren postuan, Arrasateko bigarren itzuli ia osoa geratzen zaie oraindik.

Besaidek gertu ditu Formigalera eta Alpeetara joateko eski irteerak

XABIER URTZELAI

Datorren asteburuan (urtarrilak 21 eta 22) egingo du Besaidek Formigalera eskia-tzera joateko lehenengo irteera, eta astebururo joango dira hara, apirilko lehenengo asteburura arte.

Eskaintza erakargarria da, prezio onean eskiatzeko aukera ematen duelako. Besaideko bazkideek 85 euro ordainduta eta bazkide ez direnek 95 eurotan, Formigalera-ko autobusa, NieveSol hotelean mantenu-erdiko ostalua eta bi eguneko forfaita izango dituzte. Hala, Besaidekoek azpimarratu dute kontuan hartzeko moduko eskaintza dela, eta jendea animatu gura dute, gero eta gehiago direlako eskiatzera nor bere autoan joaten direnak; Besaideren eskaintza erosoa eta merkeagoa da. Eta aste-



X.U.

Gaitza da eskiatzera joateko Besaideren eskaintza baino hobea aurkitzea.

buruetan Pirinioetara joateko egoten den zirkulazioa kontuan hartuta, baita seguruagoa ere.

Horrekin batera, Aste Santuan Alpeetara joateko bidaia ere gertatu dute, Tignes-era, hain

zuzen (460 euro bazkideek eta 470 euro bazkide ez direnek). Irteera horietan izena emateko astelehenean, martitzenetan eta eguaztenetan Besaideko egoitzan, 18:30etik 19:30era.

LABUR

Beste behin Euskadiko txapela eskuratuta, Jonathan Perez bost metroko jauziaren bila

Joan den asteburuan gutxi behar izan zuen Jonathan Perezek bost metroko jauzia egiteko. Eta marka hori gainditu barik ere, Arrasateko atletak 4,85 metroko jauziarekin lortu zuen Euskadiko Txapelketa irabaztea. Bere entrenatzaile izandako Fernando Zufriaren esanetan, gutxiatik ez zuen helburu hori bete, eta Real Sociedad taldeko atletak oraingo asteburuan izango du erronka handi hori gainditzeko beste aukera bat, Gipuzkoako Txapelketan. Kategoria guztiak izango dira bihar Anoetan.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

URTARRILAK 14, ZAPATUA. EPAILEAK

- 09:50: Lasagabaster - THC. Berdes Bremen
- 11:00: Fuxxion - Berdes Bremen. THC
- 12:00: Dribling - Iriztu Tab. Fuxxion
- 13:00: Iluntz - Arrano Tab. Dribling
- 14:00: Abokajarro - Txoponbeixek. Iluntz
- 15:00: AC Surcos - Billy & The... Abokajarro
- 16:00: AT Celaya - Pippol. Billy & The...
- 17:00: Aurrera Bolie - Betrayer. AT Celaya
- 18:00: HLB 108 - Saukelu Scre. Betrayer

URTARRILAK 15, DOMEKA. EPAILEAK

- 10:50: Aurrera Bolie - THC. Iriztu Tab.
- 12:00: Lasagabaster - Iriztu Tab. Aurrera Bol.
- 13:00: Irish Pub - Tomahawk. Lasagabast.

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA

	P	J
1. Betrayer	15	5
2. Dribling	15	5
3. Arrano Taberna	12	5
4. Iriztu	10	4
5. Pippol	10	5
6. Saukelu Scream	9	5
7. Billy & The Cowboys	9	5
8. Lasagabaster	7	4
9. Abokajarro	7	5
10. Fuxxion	7	5
11. Txoponbeixek	6	5
12. AC Surcos	6	5
13. Tomahawk	6	5
14. AT Celaya	6	5
15. HLB 108	6	5
16. Iluntz	4	4
17. Irish Pub	3	5
18. Aurrera Bolie	3	4
19. Berdes Bremen	0	5
20. THC	0	4

GURA BESTE NORGEHIAGOKA URTEA HASTEKO

HAINBAT TALDEK BI PARTIDU JOKATUKO DITUZTE

Antolatzaileek urtea behar den moduan hasi gura dute, atzeratutako partidua barik. Hala, orain arte lau norgehiagoka baino jokatuta ez dituzten taldeek gura beste lan izango dute asteburuan, futbolerako zapatilak kendu ere ez. Eta akaso ez da sasoi onena izango, Gabonak igaro eta gero jokalaririk ez dira-eta gorputzaldi onenean izango; asteburu-batean erre behar dituzte hartutako kaloria guztiak.

Kontuak kontu, jardunaldi luzea izango da asteburuko, hamabi norgehiagoka jokatzeke. Eta, bi partidua jokatuko dituztenez gain, ikustekoa izango da gainontzeko taldeek ere urtea zelan hasten duten. Askok eta askok giharretako minarekin hasiko dute astea, seguru.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

- Mondra - Hernani**
Preferentea. Zapatuan. 15:45. Atxabalpen.
- Mondra - Ostadar**
Ohor. Gazt. Domekan. 15:45. Atxabalpen.
- Gure Txokoa - Arrasate**
Gazteak. Zapatuan. 15:30. Beran.
- Arrasate - Aitzgorri**
Kadeteak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen
- Sanse - Arrasate**
Infantilak. Zapatuan. 12:30. Donostian.
- Mondra - Gasteiz Cup**
Emakumez. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

SASKIBALOIA


- Mugarri Alkesa Arrasate - Askartza**
Lehen Maila. Zapatuan. 18:00. Musakolan.

ESKUBALOIA

- Arrate - Bidasoa Irun (Pitxi-ri omenaldia)**
Asobal. Zapatuan. 18:15. Iturripen.
- Usurbil - Ford Mugarri Arrasate**
Lehen Territ. Zapatuan. 17:30. Usurbilen.
- Arrasate Eskubaloi - Allerru**
Big. Territ. Domekan. 13:00. Iturripen.
- Gatz Museoa Jakion - Tolosa**
Gazteak Mut. Domekan. 11:30. Iturripen.
- Gatz Museoa Jakion - Donibane Esk.**
Kadet. Mutilak. Zapatuan. 15:45. Iturripen.
- Arrasate - Pulpo**
Gazteak. Neska. Domekan. 10:00. Iturripen.

ATLETISMOA

- Gipuzkoako Txapelketa, Anoetan.**
Kategoria guztiak. Zapatu goizean.



Musikari gazteak sentimendu handiko pop kantuak egiten ditu.

DOCK

MUSIKA/ Bihar, zapatua, kontzertu akustikoa Amaia Udal Antzokian

Ben Lee bakarleri australiarrak emanaldi bakarra Euskal Herrian

KER BARANDIARAN

Ben Lee musikariak oso harrera ona jaso du Espainiako Estatuan. Urtarrilean hirugarren bira egingo du, eta emanaldi bakarra egingo du Euskal Herrian: Arrasatekoa, hain zuzen ere. Sentimendu handiko pop kantuak egiten ditu.

Ben Lee oso ezaguna egin zen 1990eko hamarkadan, 15 urte zituenean musika zuzenean jotzen hasi zelako. Are gehiago, beste lagun batzuekin Noise Adict taldea sortu zuen, Nirvana eta bestelako musika taldeen eraginez. Noise Adict taldeak oso harrera ona izan zuen. Izan ere, Sonic Youth taldeak bira baten gonbidatu lanak egiteko eskatu zion. Horrez gain, Public Enemy taldekoek zuzen diskoetxea baliatu eta diskoak kaleratu zieten.

POP KANTUAK GITARRAREKIN

Gerora, Noise Adict taldea desagertu egin zuten, baina Ben Leek

musika idazten eta diskoak kaleratzen jarraitu zuen. "Noise Adict taldearen sasoiko punk-rocka alde batera utzi nuen, pop abestiak egiteko. Nire musikaren bitartez, sentimenduak transmititu gura ditut", azaldu zuen Leek berak.

Are gehiago, bakarleri moduan aritzeko eta pop kantuak idazteko eragin dioten taldeak honako hauek direla azaldu izan du: Jonathan Richman, Bob Dylan, Frente, Nirvana eta Loudon Wainwright, besteak beste.

Egunotan *Awake is the new sleep* diskoa aurkeztzen dabil, eta Espainiako Estatuan hainbat emanaldi egingo ditu: Zaragozan, Malagan, Cadizen, Salamancan, Madrilan eta Arrasaten, hain zuzen ere.

Australian eta AEBetan ezagunagoa den arren, aspaldian Espainiako Estatuan ere izen handia hartu du. Hain zuzen ere, azken diskoko *Catch my disease* abestia RENFEko iragarki baterako erabili dute, eta arrakasta izan du.

Kontzertuen eskaintza

Iaz hasi zuen Udalak Amaia antzokian kontzertu akustikoak antolatzeo ahalegina. Orain arte, Ken 7 eta Black Heritage taldeen emanaldiak egin dituzte, eta biak hala biak oso arrakastatsuak izan ziren. Helburua da hilean behin talde akustiko bana eramatea, eta emanaldiak gauean beharrean iluntzean egitea, bizilagunei ez eragiteko. Ahal duten heinean, asmo horrekin jarraituko dute.

Zaharberri elkarteak euskaldun zaharren premian

I.B.

Zaharberri elkarteko arduradunak esan digu aurtengoa urte erabakigarria izango dela. Aspaldian euskaldun zaharrek ez dute askorik esku hartu, eta hori aldatzeko ahaleginak egin gura dituzte.

Zaharberri 1997an sortu zuten, euskara ikasi dutenei hizkuntza praktikatzeko aukerak emateko. Ordutik hona ibilbide luzea egin du, hainbat gorabehera izan dituen arren. Euskaltegiekin lan handia egin du, eta hango ikasleei hainbat aukera eskaini die.

Horrez gain, berbalagun eta berba taldeak osatu zituen, eta horiekin buru-belarri jarraitzen dute. Berbalagun ekimenaren bitartez, euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak batu egiten dituzte. Hortik aurrera, horiek elkartu eta ikasleek euskara praktikatzeko aukera izaten dute.

Bestalde, berba taldea ekimenarekin, hainbat irteera, ospakizun eta bestelako egiten dituzte hainbat lagunek elkarrekin. Bi horiek egin ahal izateko halabe-

harrezkoa da euskaldun zaharren esku-hartzea. "Euskara praktikatu gura duten lagun askok jotzen dute gurera, baina oso euskaldun zahar gutxi eskaintzen dute euren burua laguntzeko. Horren premia daukagu", azaldu zigun Zaharberriko Lander Juaristik. Are gehiago, honako adibidea eman zigun: "Gernikan 31 euskaldun zahar daude halako ekimenean; Arrasaten, berriz, sei".

WEBGUNA SORTU BERRI DUTE

Horregatik, asmoa dute jendearen esku-hartzea lortzeko, eta hedabideetan horren berri emateaz gain, horma-irudiak jarriko dituzte.

Bestalde, aditzera eman digute Zaharberriren webgunea sortu dutela. www.zaharberri.com helbidean elkartearen gaineko informazioa, lan ildoak eta ekin-tzak batu dituzte, besteak beste.

Horrez gain, hilabetean behin euskaltegetakoendako ekin-tzak egiten jarraituko dute, eta hiru astean behin berba taldearendako ekimenak ere iragarri dituzte arduradunek.

Webgunea sortu dute, kanpoan dabilzanek edo bestelakoek jarraipena egiteko

"Premiazkoagoa da euskara erabiltzeko laguntza ematea, euskarari dirua ematea baino"

LABUR

Aratusteak 2006 iragartzeko horma-irudiaren lehiaketa abiarazi du Udaleko Kultura Sailak

Azken urteotan moduan, Udaleko Kultura Saila Aratusteak 2006 iragartzeko lan proposaren bila dabil, eta lehiaketa antolatu du. Gura duten guztiak esku hartu ahal izango dute, eta teknika librea izango da. Horma-irudietan derrigorrez honako testua agertu beharko da: 2006 Inauteriak Arrasate.

Irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Hala ere, esan beharra dago kopuru horri PFEZen atxikipena ezarri beharko zaiola. Udalak aditzera eman du egoki ikusten bada aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo duela. Lanak otsailaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaleko Kultura Sailara, eta epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE

**Industria
hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

BOTEPRONTUEN

Nerea Mata

BETI ONA ETA SAIOA GIMNASIOAK

XABIER URTZELAI

Nerea eskoriatzarra da, eta han hasi zan aerobika egitten, ikasle moduen. Irakasliek gaittasunak eukela ikusi eta kurtsuek egittera animau euen, eta ordutik kurtsu morduetan ibilli da han eta hemen. Badie bederatzi urte gimnasiuen lanien dabillela.

Bederatzi urte; zelan aguantau leike erritmo hori?

Hasieran, egunien lau klase aerobiko emuten neuen, baiñe orduen 19 urte neuken eta gorputzak askoz be gehixau aguantetan euen. Oin holako pare bat klase emuten dot eta hortik aurrera gimnasia eta holakuek emuten dot... Argi dau holan ibiltteko norberan gorputze zaindu biher dala.

Itxi dou Gabonak atzien, eta danok gabitz hartutako kiluek kendu guran.

Igerri egitten da hori, azken astiotan jente asko etorri da-eta.

Gomendixio orijinalik?

Ez dakit zenbateraino izen neiken orijinala. Danok dakigu zer egin biher dou, egunero sartzen duskue-eta hori begixetatik. Depor tie egin, jaten doune neurtu...

Ze ofreziduten dozue Beti Ona eta Saioa gimnasiuetan?

Gimnasiuetan muskulaziñue egitteko makiñak eukittiekin batera, aerobika, Pilates metodue, pertsona nagusixendako gimnasia, dantza ikastaruek eta beste gauza asko ofreziduten dou.

Eta ze eskaketan dau jentiek gehixen?

Ikustekue da zenbat dabitzen spinning egitten. Beti Onan egitten dou hori, eta sekulako eskaerie dau. Horrekin batera, dantzak be oso modan jarri die; Batuka, bestiak beste.

Body-power, fitness, stretching, abdo-fit... Zer die horreik danok?

Body-powerra pixuekin egitten dan klasie da, baiñe suabe. Fitness-ien, barriz, ariketa aerobikuek eta anaerobikuek egitten die. Stretching-ien luzaketak lan ketan die, ariketen bittartez, eta



X.U.

"Ikustekue da zenbat dabitzen spinning egitten; sekulako eskaerie dau"

abdo-fit-en pertsonien gerri eta tripa ingurue lanketan da, abdominalak, lunbarrak eta beste hainbat muskulukin lan egindde.

Eta hamengo preziuei dago-kixenez, emun zeike nundik norakoren bat?

Gimnasio askotan kuota fijuekin egitten daue lan, eta geuk be badaukou kuota, baiñe gimnasioko zerbitzu bat baiño gehixau ibilli biher danien merezi dau horrek. Kuotie hillien 45 euro da, eta horren barruen saunie eta hillien masaje bat sartzen dou. Baiñe spinning-eko klasiek bakarrik gure dauenak ez dauko zertan kuotie pagau. Gaiñera, modalidade diferentiek konbinetako aukerie

"Inportantie da egin biher dan kirola gustokue izetie, bestela segittuen aspertuko gare-eta"

be badau. Horren preziue, gutxi gorabehera, 35 euro da.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Debagoienai?

Bertako jentiek kirol gehixau egittie.

Eta ze dauko ona?

Gauza mordue: parajiek... Ahiztie Madrillen bizi da, eta ez neuke ezergaittik be aldatuko.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

El resplandor / La casa de los espíritus / Flamenkue gustetan jat asko, eta zezer komertzialaue, Manolo Garcia.

Kapritxo bat.

Dendetan ibiltie, horixe da neure eta beste askon kapritxue.

NIREBIDAIAHURA/ Edurne Juldain

Saharara / 2005eko abenduan

Abenduko azken kapituluan hasi ginen kontatzen Maria Algabak eta Agurne Juldainek orain dela hilabete Saharara egindako bidaia. Eta hangoak bisitatu bakarrik ez, Nubi Elkarteak hangoei laguntzeko proiektua abiarazi gura duela ere azaldu genuen, eta orain dabilte horretan. Kontua da aurreko kapituluan Mariaren bidaiaren ganean ibili ginela berbetan, eta Sudairan ikusitako beharrak azaldu zituen. Oraingoan, Edurne Juldainek hartu du hitza: "Uztailean Debagoienan egin genuen jaiak arrakasta izan zuen, eta horrek animatuta beste pauso bat emango dugu. Ni ere Mariarekin batera joan nintzen abenduan Saharara, baina Smaran izan nintzen ni. Bidaia luzea da, Tinduf-en autobusa, gero lanrobe-rean... 04:00etan iritsi nintzen kanpamendura, eta konturatu nintzenerako guztiak zeuden esna, eta tea prestatzen. Ongietorri polita egin zidaten".

Mariarekin batera, hangoak bisitatzearekin batera ospitalean eta eskolan izan zen Agurne: "Hango medikuak arduratuta daude zeliako kasu asko daudelako, eta hain zuzen, zerealak dira hango elikagai garrantzitsuenetakoak".

Merkatura bidean, eskolara ere egin zuen ihesalditxo: "Bertara sartu eta umeak kantuan zebiltzan. Kontua da ikasgaiak abestu egiten zituztela, ez zeukatela non idatzi. Alde horretatik, ikastetxe asko dabilte ikas bidaiak Saharara egiten, eta eskolako materiala eramaten dute". Bitxikeriak ere ikusi ditu Agurne: "Smara lorategi txiki bat egin guran dabilte. Hiru arbola jarri dituzte, baina hareazko ekaitzek dena estaltzen dute eta zailtasun mordoa dituzte". Dagoeneko hirutan izan da Agurne Saharan, eta esan digu gero eta arropa gutxiago eramaten duela: "20 kilo eramari behar ditugu hegazkinean, eta hangoendako jana, medikamentuak eta bestelakoak eramaten saiatzen gara. Adibidez, bost kilo ezti eramaten dugu".



"Hiru arbola landatu dituzte, baina hareazko ekaitzek..."

XABIER URTZELAI



Desertuan, harearen berotasuna aprobetxatuta egiten dute ogia.



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armarri enpotratuak
Armarri-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiakOSORIK
PUBIgnazio Zuloaga 4
ARRASATE

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711752



MONDRAREN URTEKO LEHENENGO OTARRA, 'TITI'-RENDAKO

Mondrak baino hobeto hasi du *Titi*-k urtea. Joan den astean jokatu zuten Gordobilen mutilek Trintxerperen kontra, eta Arrasatekoak esku hutsik geratu baziren ere (1-2), erretratuko protagonistak, gutxienez, txuleta ederrak eraman zituen etxera. Argazkian bi txuleta azaltzen dira, eta badakigu *Titi* Trintxerpeko atzelarietako bati afaltzera gonbidatzekotan egon zela; bost zenbaki-dunari, hain zuzen. Harmailetan zeudenei keinu txarren bat egin, eta galantak entzun zituen jokalaririk horrek. Kontuan kontu, 0821 izan zen zenbaki saritua, eta Fernando Urangak eman zion saria.



GARAGARTZAN ONDO DAKITE GABONAK ZELAN OSPATU BEHAR DIREN, GALDETU OLENTZERORI

Olentzerok aspaldi hartu zuen etxerako bidea, baina merezi du aipatzea Garagartzan zelako lana egiten duten Gabonak behar diren moduan ospatzeko. Erretratuan ikusten duzuen Olentzerori auzotarrek sutondoa egin zioten Patxisena baserrian. Hau da, auzoko hiru lagunek aste osoa egin zuten apainketa lanetan. Horrekin batera, abenduaren 24an Garagartzan elkartu ziren gaztetxo guztiendako izan zituen Olentzerok opariak; eta esan digute-

nez, 45 neska-mutiko inguru egon ziren bertan. Aipatzekoa Txerrihanka taldekoek egindako lana, sutondoa apaintzea gutxi bada opari guztiak batu, abestiak gertatu eta egun horri ukitu berezia emateagatik. Normalean, gaztetxoenei ilusioa mantentzearen egiten dira horrelakoak, baina egia da azkenean nagusiak izaten direla gusturen ibiltzen direnak. Horrelako prestakete-kin, seguru datorren urtean Olentzerok Garagartzan hasiko duela egun horretako jarduna.



LOTERIAN ZORTERIK EZ, BAINA TALDEA ANIMATZEAK BADU SARIA

Ointxe Arrasate Saskibaloitza Taldekoak aditzera eman dute Gabonetan loterian irabazi dutenarekin ez direla urrun joango, ez delako ezer tokatu. Baina taldeari laguntzearen saldutako txartelen artean egon da irabazlerik. Txartelak erosi dituztenen artean Milar Elkorok oparitutako kamera zozketatu zuten, eta saria urrun samar joan da, Eivissara (Ibiza), hain zuzen. Hantxe saldu zuen Itziar Mallabiabarrenak txartel irabazlea. Zorionak, bada, irabazleari.



ARRASATEKO JUJITSU TALDEKOAK HAINBAT DOMINAREKIN ITZULI ZIREN MADRILDIK

Abenduan izan ziren Arrasateko Jujitsu Taldekoak Madrilen, hango txapelketa batean esku hartzen. Arrasatekoak eta Zumarragakoak ibili ziren Euskadi ordezkatzeko. Baina ez ziren txapelketan esku hartzera bakarrik joan. Horrekin batera, euretako batzuek epaile lanak eta teknikari lanak ere egin zituzten.

Txapelketari dagokionez, gustura itzuli ziren handik, urrezko lau domina, zilarrezko beste lau domina eta brontzezko bi domina eskuratuta. Hori bai, behin Madrileraino joan eta txapelketa zapatuan egin zuten, gauean hara eta hona ibili ziren. Jakin Espainiako Txapelketa Zumarragan egingo dutela, otsailaren 25ean.



Baron Rojo jarraitzaile asko ditu ibarrean. Argazkian, taldeko musikariak Arrasateko La Txusma musika taldekoekin.

JON LASAGABASTER

MUSIKA/ Kontzertu ikusgarriak 3.60 aretoan

Bihar, zapatua, Dikers; eta datorren egubakoitzean, Baron Rojo

IKER BARANDIARAN

Poliki-poliki, talde ezagunagoak kontratatzen hasi dira 3.60 aretoko arduradunak. Bihar, zapatua, irratietan ezaguna egin den Dikers taldeak joko du, eta datorren egubakoitzean, Espainiako heavyaren ikur den Baron Rojo taldeak.

Dikers taldeko lagunak gazteak dira, baina dagoeneko lau disko kaleratu dituzte eta ibilbide luzea egin dute urte hauetan. 1998an sortu zuten, taldeko lagunek 16 eta 19 urte bitartean zituztenean. Proiektu horren bultzatzaile nagusia da Iker Piedrafita, Barricada taldeko musikari baten semea.

ENERGIAZ JANTZITAKO ROCK-AND-ROLLA
1999an, *A qué esperamos* diskoa kaleratu zuten Dro diskoetxearekin; 2001ean, *Se escribe sin C* lana etxe berarekin. Bigarren horretan argitu gura izan zuten taldearen izena zelan idazten den.

2002an, berriz, *Dale Gas* lana kaleratu zuten EDG Music diskoetxe independentearekin; eta iaz *Las noches que me inventé* Locomotive diskoetxearekin.

Igertzen da taldeak eskarmentu handia daukala eta zuzeneko borobilak ematen dituzte. Are gehiago, neurri baten soinua gogortu egin dute. Diskoari dagokionez, Mareako Kutxi Romero, Barricadako El Drogas eta Boikoteko Juankarrek lagun du dituzte.

Dikersekin batera, Bergarako Cool Panic taldeak diskoa aurkeztuko du. Rock-and-roll bizia egiten dute bergararrek.

Baron Rojoren kontzerturako sarrera mugatuak atera dituztela jakinarazi dute

ESPAINIako HEAVYAREN IKURRAK

Datorren egubakoitzerako, berriz, ustekabeko emanaldia antolatu dute 3.60 aretokoekin. Baron Rojo talde mitikoak kontzertua egingo du han.

Talde hori 1981ean sortu zuten, eta ordutik hona zeresan handia eman du. Hain zuzen ere, atzerrian ospe handia hartu zuen. Dagoeneko disko ugari kaleratu dituzte, eta itzelezko zuzenekoak ematen dituzte. Ohikoa da taula gainean hiru bat ordu ematea.

Hala, Baron Rojok 25 urte bete dituen honetan, hainbat disko berrargitaratu dituzte eta DVDA kaleratu dute. Horrez gain, duela gutxi *Perversiones* diskoa kaleratu zuten. Disko hori beste talde batzuen bertsioekin osatu dute: Rainbow, Ted Nugent, Michael Schenker, Jimmy Hendrix, Black Sabbath, Bad Company, Deep Purple, AC-DC, Janis Joplin eta Bob Dylan, besteak beste.

Baron Rojok ondo baino hobeto eusten dio duen adinari, sasoi betean daude eta!

Gaztetxean hainbat musika emanaldi datozen egunotan

I.B.

Gabonetako oporren ostean, gazte batzarra lanean hasi da berriro. Gaur eta bihar kontzertuak egingo dituzte, eta urtarrila bukatu artean askotariko aukerak egongo dira gaztetxeko taula gainean.

Egia esanda, aspaldi honetan gaztetxean ez dute lehen adina ekitaldirik egin. Orain, berriz, gogor datozela erakutsi digute, eta epe ertainerako beste hainbat ekitaldi prestatzen dabilzala iragarri digute. Ez digute ezer aurreratzeko utzi, baina laster eman ahal izango dugu horren berri.

MUSIKA BARRA-BARRA IZANGO DA

Asteburu hau kontzertuz betebetuta dator. Gaur, egubakoitza, Elorrioko Lor taldeak *Bakoitza-ri berea* izeneko bigarren diskoa aurkeztuko du. Gor taldeak kaleratu du lana, eta melodiaz jantzitako metala egiten dute. Eurenkin batera, Iruñeko Kasu taldea igoko da taula gainera. Kasu taldearen lehenengo lana Musik-Herria ekimenarekin argitaratu berri dute.

Bihar, zapatua, Piztiak taldeak ikuskizun berezia egingo du. Kostaldeko talde hori eszenatiketara itzuli da, eta *Euriaren zain* izeneko lan berezia kalera-

tu du Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Zuzenean, 60ko eta 70eko hamarkadetako rock-and-rolla eta ikus-entzunezkoak uzartuko dituzte. Aipatutako bi kontzertuak 22:30ean egingo dituzte.

Datozen egunotarako honako emanaldiak iragarri dituzte gaztetxean: hilaren 21ean, Ama Say taldearen oinordekoak diren Zein? eta Desoreka diskoa aurkezten; hilaren 27an, Donostialdeko Asgarth eta UK Billen doinu heavyak, hain zuzen ere.

Gaur, egubakoitza, Lor eta Kasu; eta bihar, zapatua, Piztiak taldearen ikuskizuna

Hilabetea bukatu aurretik, heavy doinuak eta bestelakoak eskainiko dituzte



Piztiak taldeak 60ko eta 70eko rock-and-rolla eskainiko du, bideo-proiektzioekin.

GAZTELUPEKO HOTSAK

Zure negozioaren erakusleioa Interneten
www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioa eskaintzaren berri sarean
- Euskari merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4
/arregi
/atai
/azkarate

/joseba
/BZ-sistemas
/gallastegi
/garaia

/gutzieder
/korozabaleta
/multipticas
/vitoria

/pando
/udalatx
/udalaitz

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com



Etxeko konponketak

Elektrizitatea



ARANZABAL S. COOP.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Maitena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

Metal aroztegia, P.V.C.
eta aroztegia

Lekuz aldatu gara!

Debagoiena industrialdean gaude, 11. pabilioian.
Tel.: 943 79 11 35 - Faxe: 943 77 31 20



Iturgintza • Berogailuak • Gasa • Bainugelak

Kale txiki 9 behea ARRASATE

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel.: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zer eraiki behar dute Polmetasa dagoen lekuan?
Arrastoa: halako asko eraikitzen dabilta Arrasaten.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESS-ERA!

Casa Alicia esparragoak
6-9 ale. 345 g-ko ontzia.

1€ 167 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

XABI UGARTE erendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Xabi!
Galderaren erantzun zuzena:
Bartzelonako Lope Alberdik.

ARRASATEKOHISTORIA


Arantzazuko ateak, beirateak eta presbiterioa

'LA NUEVA BASILICA...' / U.M.

Arantzazuko Basilikaren eraikuntzaren kontakizunarekin jarraituko dugu segidan. Eraikinak itxura hartu ostean, bestelako elementuak eraikitzen hasi ziren. Hala, Laorga egurrezko ateak egiten hasi zen Arantzazuko sarrera nagusirako, baina Saenz Oitza arkitektoak proiektu hura atzera bota zuen. Besteak beste, Arantzazuko Basilikaren aurrealdeko ate haiek burdinazkoak izatea nahi zuen-eta. Hala, Eduardo Txillida eskulturagilearekin berba egin eta hari enkargatu zizkioten ateak. Txillidak 75.000 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen. Arantzazukoei, berriz, larregi iruditu zitzairen. Hala, Txillidarekin berba egin eta hark 60.000 pezetara jaitsi zuen aurrekontua, eta bestelako zailtasun batzuk gainditu ostean, 1955eko otsailaren 1ean sinatu zuten kontratua eskulturagilearekin. Bi hilabete eta erdiko epea eman zioten Txillidari lau ateak egiteko.

EULATEREN BEIRATEAK

Basilikako beirateei dagokienez, berriz, Xabier Eulate izan zen



Argazkian, Eduardo Txillida eskulturagilea azaltzen da (erdian dagoena), Arantzazun.

haien egilea. Esan beharra dago basilikaren baitan sortu ziren eztabaidetan-eta beirate haiek salbatu egin zirela. Hala, haren zirriborroak erabilita, Metz-en (Frantzia) eraiki zituzten beirateak, 1957an. Hain zuzen ere, sakristiaren ondoko beirateak, gurutzadu-

1982an hasi zituzten presbiterioa berritzeko obrak; Felix Ugartek egin zituen lanak

rakoak eta gelatorako sarrera-koak. Eta 1983-85ean Eulatek beirate gehiago egin zituen basilikaren eta ostatuaren artean.

Bitxikeria bat edo beste bada beirate haien inguruan. Besteak beste, Kubako frantziskotarrak ordaindu zituzten. Guztira,

sasoi hartako 4.568,80 dolar ordaindu zituzten.

80KO HAMARKADA, GARRANTZITSUA

Bestalde, 1982 eta 1983. urteak garrantzitsuak izan ziren basilikarendako. Tarte hartan bota egin zuten eskola zaharra, oinezkoen guneko zoladura egin zuten eta denda, biltegia eta komunak eraiki zituzten. Basilikako barruko aldean, berriz, presbiterioa eraiki zuten, berogailua ipini eta, besteak beste, elektrizitate instalazio berria egin zuten.

PRESBITERIOA DELA-ETA

Baina lanik handiena presbiterioarena izan zen, hura berritzeak dezente aldatu zuen-eta elizaren itxura. Hain justu ere, 1981eko amaieran erabaki zuten zela egin presbiterioa. Jose Maria Zuntzuegi projektugileak aurkeztu zituen planoak. Obrak, berriz, 1982an hasi zituzten. Felix Ugarte izan zen eraikitzailea.

Presbiterioaren ezaugarriaren gaineko datu batzuk ematearren, esan behar da erabili zuten harriak Motriku izena duela, Markinatik ekarritako gainerako harriarekin ondo ematen zuen-eta.

Erlikiendako santutegia, berriz, Lucio Muñozek egin zuen. 1983ko azaroan ipini zuten.



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

ETXE ADMINISTRATIOA

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@telefonica.net

APAREJADOREA

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ABOKATUA

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2006eko urtarrilaren 13a

407. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: S5378/94

Lucio Garaik legeak dioena bete dezala gura dute Iralabbarri plazako bizilagunek

MIRARI ALTUBE

Joan zen astean bukatu zen Lucio Garai lantegiaren proiektuari alegazioak aurkezteko epea. Iralabbarri plazako bizilagunek eskaera bakarra egin dute: legeak dioena bete dezala lantegiak eta betearazteko ardura har dezala Udalak.

Joan zen astean bertan Iralabbarri plazako bizilagunek Ertzaintzari deitu zioten Lucio Garai lantegian zarataka zebiltzalako. 06:00ak ziren eta deitzen zioten hirugarren aldia zen. Bizilagunen esanetan, ertzainek itxi egin zuten lantegia.

BAIMEN BARIK LANEAN

Lucio Garai lantegia baimen barik ibili da lanean orain arte. Bere garaian ez zion inork eskatu, eta Iralabbarri plazako bizilagunek kezaka hasi zirenean konturatu zen Udala. Hori horrela, proiektua aurkezteko eskatu zion. Aurkeztu zuenak informazio gutxi ematen zuen; hortaz, proiektu zabalagoa aurkeztera behartu zuten. Joan zen egunean bukatu zen proiektu horri alegazioak aurkezteko epea. Bizilagunek abokatu baten eskuetan utzi dute kontua, proiektua hobeto ikertuko duelakoan,



Baimen barik ibili da lanean Lucio Garai eta orain proiektua aurkeztu eta moldaketak egin beharko ditu baimen hori lortzeko.

baina Udalarari eskaera zuzena egin diote: legeak ezartzen dituen baldintzak betearaztea lantegiari.

SOINU NEURKETAK

Legeak dioenez gaez ezin da 30 dezibelio baino gehiago egon etxebizitza batean, ezta egunez ere 40 baino gehiago. Horren berri eman zuten Udalak lantegiko arduradue-

Bizilagunen esanetan, Lucio Garaik ez du bete azken hilabeteotan legeak dioena

nei, eta jakinarazi 06:00etatik 08:00etara ezingo zituztela hainbat makina martxan jarri, nahiz eta langileak lanera joan. Bizilagunen ordezkarien esanetan, ostera, ez dute halakorik bete eta joan zen astean hirugarren aldiz deitu zioten ertzainei kezaka. Hirugarrenean itxi egin zuten lantegia. Udaleko Hirigintza arduraduen esanetan, soinu neurketak egin dituzte azken asteotan 06:00etatik 08:00etara bitartean, eta bete egiten du legea. Gainera, ez dute jaso inondik lantegia itxi zuten berririk.

UDALAREKIN HASERRE

Iralabbarri plazan 17 atarte daude. Hango bizilagun asko ez daude batere pozik Udalak egindako kudeaketarekin. Ez dute ulertzen zela utzi dioten baimen bako lantegi bati lanean jarduten. Gainera, diote kezak jakinarazi zizkietenetik denbora luzea pasatu dela zerbait egin orduko. Ez dietela behar bezalako arretarik jarri uste dute, eta lantegiari ez dietela legea betearazi. Hemendik aurrera, eta lantegiari baimena eman bitartean, zain geratuko dira. Behin baimena emanda zaratei dagozkien baldintza guztiak betetzen dituen frogatuko dute, eta hala ez balitz epaitegira jotzeko gertu daude.

Udalak, berriz, aurkeztu duena baino proiektu osotuagoa eskatu dio Lucio Garairi. Informazio hori guztia Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio eta Jaurlaritza izango da zein aldaketa eta zein hobekuntza egin behar dituen esango duena. Hori guztia jaso ostean moldatu egin beharko dute lantegia, eta orduantxe emango dio Udalak baimena.

Hasi dira egiten 560 metro luze izango dituen Arbizelaiko zubia

M.A.

Aretxabaletako iparraldeko sarreran AP-1 autobidea alde batetik bestera pasatuko da. Horretarako 560 metro izango dituen zubi ikusgarria egingo dute. Dagoeneko hasi dira lanak egiteko ingurua gertatzen.

Urtarrilean hasi gura zituen Aldundiak Arbizelaiko zubiaren lanak, eta halaxe izan da. Poliki-poliki hasi dira ingurua gertatzen hondeatzeko makinaren bitartez,

eta gero eta kamioi eta langile gehiago ikusiko ditugu.

ZUBI IKUSGARRIA

AP-1 autobideko zatirik ikusgarrienetako bat izango da Arbizelaiko zubiak. Arrasatetik Gasteizera noranzkoan, GI-627 saihesbidearen ezkerretara egingo dute. Lehen Arbizelai baserria zegoen gainetik, harrobi zaharraren ingurutik, Isurieta auzora joango da. Isurietan 260 metro dituen tunela egongo da, eta zubiak tunelarekin egingo du bat.

Arbizelaiko zubiak ez da nolana nahikoa izango: 560 metro luze eta 7 pilare izango ditu. Pilare horietako biren arteko distantzia 140 metrokoa izango da, horregatik kableekin babestuko dute zubiak. Aretxabaletako Udalak ingurumenari kalterik txikiena eragiteko eskatu zion Aldundiari. Hori lortzeko ahalegina egin du honek eta zubiak zela aukerarik egokiena iruditu zitzaion. Hala, errepi-dearen saihesbideak, bidegorriarendako lekuak eta ibaiak ez dute moldaketarik jasango.



Hasi dituzte Arbizelaiko zubiaren lanak herriaren iparraldeko sarreran.

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 14
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 15
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07

ARETXAGAZETA 943 79 86 21

Faxa 943 77 18 54

Basotxo 943 77 09 81

Euskaltegia 943 79 21 68

Gizarte laguntzailea 943 71 18 62

Industrialdea 943 79 62 80

Institutua 943 79 79 00

Kirol etxea 943 71 26 28

Kultura etxea 943 71 10 27

Gazteria saila 943 71 10 27

Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49

Kurtzebarri BHI 943 79 57 40

KZGunea 934 79 94 44

Liburutegia 943 71 18 62

Loramendi EE 943 77 09 70

Ludoteka 943 79 05 81

Mankomunitatea 943 79 30 90

Murruxiko ME 943 79 93 74

Musika Eskola 943 79 36 50

Osasun etxea 943 71 19 59

Otalora 943 71 24 06

Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42

Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77

Postetxea 943 79 28 31

Basabeazpi Ikastola 943 71 21 18

Taxi geltokia 943 77 12 64

Udal Bulegoak 943 71 18 62

Udaltzaingoa 943 71 18 63

Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA

Arasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112

Eskualde Ospitalea 943 03 53 00

Ertzaintza 943 79 71 99

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdialk 943 46 11 11

Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

OHARRAK

PIRRITX ETA PORROTX IKUSTEKO SARRERAK

Urtarrilaren 28an, zapatua, Pirritx eta Porrotx pailazoek Maite zaitut ikuskizuna eskainiko dute kirol etxean, 17:00etan. Sarrerak salgai daude kultur etxean, kirol etxean eta ludotekan 4 euroren truke. Leihati-lan 5 euro balioko dute.

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00 (hiletak izan ezik)

BASERRI AUZOETAN: GOROETA

Domeketan: 11:30

ARKARAZO

Domeketan: 12:30

GELLAO/IZURIETA/GALARTZA

Ez dago mezarik.

ELKARRIZKETA

NEREA MARTINEZ/ORIENTAZIO BULEGOKO ARDURADUNA

“Lan bila dabilenari orientazio zabal eta sakona emango diote Enplegu zentroan”

M.A.

Enplegu zentroa jarriko du abian Eusko Jaurlaritzak Aretxabaletako institutuan. 2003an Enplegurako orientazio zerbitzua, Lanbide, jarri zuen, eta orain, Enplegu zentroak, osatu egingo du aurretik zegoena.

Zer izango da Enplegu zentroa?

Lanbideren bitartez orientazioa ematen diegu lan bila datozenei edo lan hobea topatu gura dutenei. Enplegu zentroarekin orientazio zabalago eta sakonago emango diegu. Horretarako Internet jarriko dugu bezeroen eskura, baita eguneroko prentsa ere. Horrez gain, lan orientazioan espezializatutako langile baten aholkularitza izango dute lan bila datozenek.

2003an zabaldu zenuten orientazio zerbitzua. Zein eratako jendea etortzen da?

909 lagun pasatu dira Lanbideko bulegotik hiru urtean. Era askotako jendea dator: ikasketak bukatu berri dituzten gazteak,



M.A.

emakume asko eta lan barik geratu diren gizonezkoak.

Zela baloratuko zenuke hiru urte horietako lana?

Oso positiboa izan da. Debaioenean langabezia tasa oso txikia da; horregatik kostatzen da egin zitezaion zerbitzuari martxa hartzea. Orain badaukate institutu-ko zerbitzuaren berri eta jende

asko hurreratzen da. Enpresek eurek ere jotzen dute gugana langileak behar dituztenean; batez ere lantegi txikiek.

Noiz zabalduko duzue Enplegu zentroa?

Otsailean, oraindik ez daukagulako orientatzailea. Norbait interesatuta badago postuan, curriculumak ekar dezala institutura.

17 urtean parroko izandako Bitoriano zendu da astean

M.A.

50 urtetik gora egin zituen Bitoriano Aranburuk Aretxabaletako parrokan lanean. 17 urtean izan zen parroko, eta herritar zein auzotarrek ondo baino hobeto ezagutzen zuten. Eguaztenean hil zen.

Arrasatearra zen eta 1953ko ekainaren 29an izendatu zuten abade Arrasateko parrokan. Hala ere, Andramari egunerako gurean zegoen meza esaten. Ia 26 urte

egin zituen On Anjel Garmendia parrokoari laguntzen, eta 1979ko uztailean Bitoriano izendatu zuten parroko. 17 urtean izan zuen parrokiako ardura eta 1996an utzi egin zuen, osasun arazoak zirela eta.

2003AN OMENALDIA

Aretxabaletarrek omenaldi apal baina beroa eskaini zioten 2003ko ekainaren 15ean, apaizgoaren urrezko ezteiak ospatzeko. Orduetik hona osasunak ez zion lagun egin eta eguaztenean, urtarrilak 11, zendu zen, 76 urte zituela.



ARTXIBOA

Omenaldia egin zioten herritarrek 2003an eta apaiz lagun asko izan zituen alboan.

LABUR

Egurrezko egutegia egingo dute bihar eta etzi gaztelekuan

Egurra landu eta egutegia egingo dute Atxagazte gaztelekuan bihar eta etzi. Hurrengo aste bukaerarako, urtarrilak 21 eta 22, makillaje ikastaroa gertatu dute. Urtarrilaren 28an, ostera, mendi irteera egiteko asmoa daukate, baina oraindik ez dute erabaki nora. Hilaren 29an, domeka, ekintza libreak egiteko eguna izango da eta, hain zuzen, gazteek eurek erabaki eta antolatu beharko dute egun horretako egitaraua.

Hainbat autotan lapurretan egin dute aste bukaeran

Joan zen aste bukaeran hainbat automobiletan lapurrak sartu ziren. Bedarreta auzo inguruan zeuden aparkatuta aipatutako autoak eta kristalak apurtu eta barrura sartu ziren lapurrak. Inor ez da joan udaltzainengana ekintza salatzera; hortaz, ertzainengana joko zutelakoan dago Martin Garai udaltzain-burua. Bestalde, Errege bezperan herriko denda baten sartzen saiatu ziren lapurrak, baina ez zuten lortu.



KZgunea urtarrilean arratsaldez

Oporrak bukatu eta martxan da berriro Markole auzoan dagoen KZgunea. Urtarrilean arratsalde zabalduko ditu ateak, 16:00etatik 20:00etara, eta hainbat ikastaro antolatu ditu Aitor Madrid arduradunak. Interneten gaineko ikastaroa hasiko dute urtarrilaren 23an eta egunero emango dituzte eskolak, 18:00etatik 20:00etara. Argazki digitalak zela moldatu ere erakutsiko dute urtarrilaren 24tik 28ra. Eta finantzak gustuko dituenak egun bakarreko ikastaroak izango ditu hilaren 30ean eta 31n. / M.A.

Errenteriarren aurka jokatuta hasiko du liga Arlutz xake taldeak

M.A.

Bihar, zapatua, hasiko du denboraldia Arlutz xake taldeak. Lehenengo partida kanpoan jokatuko dute, Errenterian, Fomento Culturalen aurka. Denboraldi gogorra izango da, talde indartsuak daudelako, baina ilusioz ekingo diote aretxabaletarrek.

Euskal Ligako ohorezko mailan jokatu ditu azken bi denboraldiak Arlutz xake taldeak. Bihar, urtarrilak 14, hasi eta martxoaren 11 bitartean zapaturo izango dituzte partidak. Lehen Errenterian jokatuko dute, Fomento Culturalen aurka.

KIDE BERRIA TALDEAN

Ohorezko ligan Euskal Herriko hamar taldek jarduten dute, eta Arlutz xake taldea da debagoiendar bakarra. Iaz arrasatearrek ere ibili ziren, baina mailaz jaitsi ziren. Fran eta Andoni Miguel anaiek, Aitor Alkaidek eta Esteban Romerok denboraldi gogorra hasiko dute bihar: "Hamar taldetik sei edo zazpi oso indartsuak dira; mailaz igo diren artean ere oso talde onak daude; Easo, esaterako. Talde horrek, gainera, fitxaketak egin ditu indartzeko. Hortaz, benetan gogorra izango da denboraldia", dio Aitor Alkaide xake jokalaria. Gros taldea da, zalantza barik, liga irabazteko faboritua; iazko txapelduna, hain zuzen. Bestalde, sailkapeneko azken hiru taldeak mailaz jaitsiko dira.



Gogotsu ekingo diote denboraldiari Arlutz xake taldeko kideek.

Aretxabaletarrek taldea indartu guran bosgarren kidea hartu dute: Jesus Berezibar arrasatearra. Lehen ere ibilitakoa da Jesus Arlutzen; hortaz, ondo ezagutzen ditu bai taldekideak, bai jokatzeko era.

BIGARREN, GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Gipuzkoako txapelketa jokatu zuen urria eta abendua bitartean Fran Migelek. Hasieran mar-txa hartzea kostatu bazitzaion

ere, bigarren bukatu zuen. Txapelduna Donostiako Iñigo Argandoña izan zen, Gros taldean jokatzen duen jokalaria.

Arlutzek egoitza berria dauka iraila ezker. Ordura arte kultura etxean egon baziren orain Irabalbarri plazako 4. eta 5. zenbakidun atarteen artean daude. Hurrengo zapatuan, urtarrilak 21, etxean jokatu dute aretxabaletarrek, Gasteizko Ruta de Europa taldearen aurka.

Eski irteera egingo du Murruxok otsail hasieran, hasiberrientzat

AM.A.

Eski irteera antolatuko du Murruxok otsailaren 4 eta 5erako. Hasiberriendako izango da, inoiz probatu ez duenarentako edo materialik ez daukanarentako. Urtero egiten duen eski alpino irteera, osteran, otsailaren 18an eta 19an izango da.

Eskiatzera sekula joan ez direnek paregabeko aukera daukate Murruxoko Mendizale Taldearen eskutik: otsailaren 4an eta 5ean hasiberriendako irteera. Elurretan moldatzeko gai den probatu gura duten guztiendako antolatuko dute. Gehienek ez dute materialik izango; hortaz, horiek errentan hartzeko aukera izango dute. Izena emateko Murruxokoko lokaletik pasatu behar da martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Azken eguna ur-



Giro bikaina sortzen da Murruxok antolatzen dituen eski irteeretan.

tarrilaren 24an izango da. Oraindik ez dute erabaki nora joan, izena ematen duten kopuruaren arabera hartuko dute erabakia.

Bestalde, Murruxok urtero antolatuko izan du eski alpino irteera. Aurten ere egingo dute, otsailaren 18an eta 19an, hain zuzen.

LABUR

Patinaje ikastaroa antolatu du Kirol Sailak, eta hilaren 18rako eman behar da izena

Urtero legez patinaje ikastaroa antolatu du Udaleko Kirol Sailak. Urtarrilaren 21ean hasiko du ikastaroa Mikel Morras irakasle arrasatearrek kirol etxean, eta zazpi zapatutan emango ditu eskolak. Talde bi egingo dituzte: hasiberriendako ikastaroa 10:00etatik 11:30era izango da eta teknika hobeto gura duten patinatzaileen-dako, 11:30etik 13:00etara. 12 lagunetik gorako taldeak osatuko dituzte, eta zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak kirol etxera deitu behar dute urtarrilaren 18a baino lehen.

Udaberriko Pilota Txapelketa jokatzeko hasiko dira asteburuan herriko bost bikote

Asteburu honetan hasi eta martxora bitartean jokatu dute Udaberriko Pilota Txapelketa Gipuzkoako pilotariak. Aretxabaletako bost bikotek jardungo dute norgehiagokan: hiru senior mailakoak eta bi kadeteak. Uriarte eta Oionek etxean daukate partidua gaur, 20:00etan, usurbildarren aurka. Akizu eta Gardoki kadeteak Donostiara joango dira gaur; eta Lasagabaster eta Altzola eta Errasti anaiek Usurbilen jokatu dute domeka goizean. Uribarren eta Perez de Labeaga kadeteek hurrengo aste arte ez dute partidurik.



Hamabost talde Peña Zubin

Abenduaren 26a eta urtarrilaren 5a bitartean jokatu zuten Peña Zubi txapelketa Debagoieneko hainbat mutikok; hain zuzen, 15 taldek jardun zuten. Ez zien eguraldi onik egin, baina giro bikaina izan zuten txapelketan zehar. 93-94 urteetan jaiotako- en artean Arrasateko Solano taldeak irabazi zuen, 95ekoan artean Jomak eta 96koan artean Solanok. Txapelketako atezain onenari ere eman zioten saria eta Markel Giletto aretxabaletarrek eskuratu zuen (argazkiaren erdian sariarekin). / M.A.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Mutriku
Preferentea.
Domeka, 16:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Eibartarrak
Lehen mailako gazteak.
Domeka, 12:15. Ibarra.
UDA/Arizm.-Vasconia
Infantil txikiak.
Zapatua, 16:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Andazpe
Egubakoitza, 20:30. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA


UDA 3 Ordizia 0
Preferentea.
UDA 0 Soraluze 0
Bigarren mailako erregionala.
UDA/Arizm. 3 Sporting Herrera 1
Ohorezko gazteak.
Sporting Herrera 1 UDA/Arizm. 1
Lehen mailako gazteak.
Eibartarrak 0 UDA/Arizm. 4
Lehen mailako kadeteak.

Bergara 2 UDA/Arizm. 1
Bigarren mailako kadeteak.
UDA/Arizm. 0 Real Sociedad 6
Ohorezko infantilak.

ATREBENTZIAEZPADA/ Beherapenetan erosteko ohituraik badauketzu? Mereziz izeten dau?



MARI KARMEN ELORTZA
Jubilae



ASIER ERAÑA
Langillie



ALICIA LLAMAS
Jubilae



MAITANE ARREGI
Langillie



JESUS MARI ROMAN
Langillie



AZAHARA MUÑOZ
Langillie

Beherapenak dielako bakarrik ez dot erosten; falta egitten dustenien faten naz erosten, beherapenak izen edo ez. Zer eta nun arabera merezi dau edo ez, beherapenetan dauzen danek ez.

Ez naz sekule fan beherapenetan erosten, baiñe merezi izengo daue, ez? Nik neuk biher dotenien erosten dittut gauzak, beherapenak noix izengo itxoin barik.

Bai, horixe faten nazela erosten. Beti, baiñe, ez daue merezi izeten; batzuetan bai eta hurrenguen ez. Falta egitten dustena bakarrik erosi izen dot, zetarako gehixau?

Momentu honetan ez, baiñe fan izen naz. Hala eta be, udako beherapenetan gehixau erosi izen dot. Mendiko gauzek merezi daue; igez, esaterako, 90 euro aurreztu nittuen txamarra baten.

Ez jat bape gustetan beherapenak; hori baiño gehixau, gorrotatu egitten dittut. Gurau dot apur bat itxoin eta geruau erosi, gehixau pagaute bada be. Geu engañetako besteik ez die.

Bai, erropie erosten faten naz, eta merezi izeten daue la pentsetan dot. Ez naz faten aurrez pentsaute eta topetan dotena erosten dot. Hori bai, biher baiño gehixau erosi izen dot askotan.

TXALOAKETATXISTUAK




TXALOAK GABONETAKO EKINTZAK Garai berezia da Gabon garaia, batez ere umeendako. Horregatik hainbat ekitaldi antolatzen ditu Kultura Sailak gurasoen laguntzarekin: Olentzero, Bizar Zuri eta Errege kabalgata. Ezin hobeto burutu ziren guztiak, txikiki-riak albo batera utzita, eta umeak pozez gainezka. Ea gurasoek gero eta gehiago laguntzen duten ekintzak antolatzeko orduan... / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Beroa lantegia botatzen hasi ziren etxeak eraikitzeko

Gasteizko Urvasco enpresa eraikitzailea urte berriarekin batera hasi zen Beroa lantegia botatzen. Atzerapenarekin hasi zituzten lanok, LASA enpresa leku aldatzeko zain egon zelako. Bi hilabete inguru behar izan zituzten botatzeko. Ondoren etxebizitzak eraikitzen hasi ziren; 130 egin zituzten.



ASTEKODATUA

2

ALDIZ IRABAZI DU GEMES-EK-ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Gemes estetika zentroak irabazi du Gabonetako erakusleiho lehiaketa. Bai iaz, bai aurten Gemesendako izan dira 250 euroak. Bigarre-na Pagaldi Pentsuak izan zen eta hirugarren Martin erloju denda.

BESTE EKESANA

“ Giza eskubideen defentsan pauso sendoak emateko unea da hau. Ibaetako foroak deitutako manifestazioa helburu horri jarraiki egin beharreko bidean jauzi garrantzitsua izatea nahiko nuke. Alta, euskal presoei estatus politikoa onartzeko borrokak luze joko du; manifestazioa bukatuta, bihar ere lanean jarraitu beharko dugu.

XABIER SARASUA
'Berria'/06-01-08

Zigarroa da zalantza barik lasaigarri erabiliena. Horregatik uste dut indarrean sartu den legeari luzamendua eman beharko lioketela, behintzat euskaldunontzat, geure arazoak konpondu bitartean. Eta gure arazoa normalkuntza politikoa da.

FELIX IRIARTE
'Diario de Guipuzcoa'/06-01-08

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Bai ote?

A rre, arre... Urte berri, asmo berri. Bai ote? Edota "zaharrak berri". Ikusten eta entzuten jarraitzen ditugunak kontutan edukiaz, badirudi aurrekoaren jarraipena dugula, besterik gabe. Ni, egun hauetan, "corte inglese"ko girotik urrun ibili naiz, hiper/supermerkatuko zaratik at, oparien konpromisoetatik aldentuta... Zorionez!

Baina nire buruari bidaia bat opa izan diot: norberaren barruraino, bihotzaren atetaraino daraman bidea eta hor, hainbat gauza, modu berri batean "ikusten"/"entzuten" saiatu naiz. Gau ilunaren erdian, argi berri bat sumatu dut; eguneroko eguna, egun berri (Eguberri) eta gau on (Gabonak) bat bezala antzematen saiatu naiz. Ariketa eta emaitza ederra hau aurkitzeko gai izan bagara! Zoritzarrez, aldi

honetako mezu komertzialak, zaratak, estresak eta beste horrenbestek aukera hori dezente oztopatzen dute. Dena den, bada nire buruari galdetzen diodan beste zerbait: Jesus/Jainkoa ezer eta inor ez bada nire bizitzan, zetarako eta zergatik onartzen dut hainbeste eromen (bazkariak, afariak, sms-ak, emailak, postalak, opariak...)? Eta erantzun bakar bat aurkitzen dut: askatasunaren izenean (aske bizi garena esaten baitugu)

bihotza/bizitza, geure onarpenarekin, espetxean sartu dugu.

Ikasiko ote dugu urte berri honetan benetako askatasunaren, hausnarketaren eta kritika eraikitzailearen bideak urratzen? Urtarrileko "beherapenek" eduki duten erantzuna ikusirik ez dakit ze pentsatu... Hala ere, ni saiaturik naiz beste bide horretan, pena merezi baitu!

“Jesus/Jainkoa ezer eta inor ez bada nire bizitzan, zetarako eta zergatik onartzen dut hainbeste eromen?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAN
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 13a / 239. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otalora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartuta, plan estrategikoa abiarazi dute

IKER BARANDIARAN

Joan den urteko azkeneko osoko bilkuran, udalbatzarrak onartu egin zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian jartzea. Horren aurretik, Udaleko Euskara Sailak prozedura bat egin behar izan zuen eta Jaurlaritzaren baime-na lortu. Bada, biak bete ditu.

Aspaldian, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hainbat herritan onartzen dabiltza. Eusko Jaurlaritzako Gobernu batzordeak 1998an onartu zuen plan hori. 2000. urtetik aurrera, batez ere 5.000 biztanletik gorako herri batzuetan abiarazi zuten. Horren ostean, horiek baino herri txikiago batzuk eskariak egiten hasi ziren, eta Jaurlaritzak bestelako ereduak sortu zituen.

Debagoienean dagoeneko herri hauek daude sartuta: Bergara, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza, hain zuzen ere.

Eskoriatzari dagokionez, Udaleko Euskara Sailak 2003an egin zuen urteko plangintzan, Jaurlaritzaren Plan Nagusi horren arabera eskema erabili zuen.

Plan Nagusi hori ezarri ahal izateko, Udalak hainbat baldintza bete behar izan ditu: batetik,



Udalak gura du herriko elkarte eta bestelako eragileek ere ahalegina egitea euskara bultzatzeko.

langile kopuru zehatz batek euskararen alde lan egitea; bestetik, herriko beste hainbat elkarte eta eragilerekin Euskararen Aholku batzordea sortzea; eta azkenik, finantzaketa proposamena egitea.

2009RA BITARTEKO PLAN ESTRATEGIKOA Plan Nagusia onartu bezain laster, Udaleko Kultura Sailak bes-

te eragile batzuen laguntzarekin 2009ra bitarteko plan estrategikoa diseinatu du.

Plan estrategikoari dagokionez, horrek herriko alor gehienak ukituko ditu. Udaleko Euskara Saileko teknikari Mari Carmen Arrietak honako hau azpimarratu zuen: "Orain arte Udalen barruan lan handia egin dugu,

baina etorkizun laburrean enpresetan eta kirol taldeetan lan handia dugu egiteko, premia handia dute-eta".

Horiez gainera, Udalak asmoa du kale izendegia eta herriko toponimia ere zabal lantzeko, baita etorkinen gainean lan berezia egiteko ere. Horiek guztiak laster zehazten joango dira.

Plan horrekin batera, 2009ra bitarteko plan estrategikoa diseinatu dute

Enpresetan eta kirol taldeetan lan egiteko premia handia ikusten du Udaleko Euskara Sailak

HERRIKO TALDEEN ESKU-HARTZEA

Mari Carmen Arrietaren ustetan, oso garrantzitsua da bereiztea "Udalaren plana izan arren, euskalgintzako eta bestelako taldeei ere eskatuko zaiela esku hartzea eta konpromisoak hartzea. Hori ezinbestekoa da".

Horrekin lotuta, Arrietak aditzera eman zigun onartutako plana eragile guztiei aurkeztuko dietela otsailean, eta horiek guztiak gonbidatuko dituztela euskaratze prozesuan eginbeharrak hartzera.

Agortu dira gaur Benito Lertxundik egingo duen emanaldirako sarrerak

I.B.

Benito Lertxundi Orioko musikariak gaur, egubakoitza, egingo du kontzertua kiroldegian. Emanaldi hori abenduan egitekoa zen, baina gripea hartu eta bertan behera utzi behar izan zuen emanaldia.

Udalak jakinarazi du dagoeneko Benito Lertxundiren kontzerturako sarrera guztiak salduta dardela. Abenduan egin beharreko kontzerturako 300 bat sarrera

saldu zituzten, eta dirua bueltan hartzeko aukera eman zuten arren, oso gutxi izan ziren aukera hori hartu zutenak.

Behin data berria zehaztuta, Udalak gainontzeko sarrerak salgai jarri zituen Arrasaten eta Eskoriatzan, baina aste honetan saldu dituzte azkenekoak.


JARRAITZAILE ASKO HERRIAN

Orain dela hiruzpalau urte ere Lertxundik kiroldegia lepo bete zuen eta oso kontzertu berezia eskaini zuen. Itxuraz, eskoria-

tzarrak eta ibarreko beste herritar asko errepikatze gogoz daude, eta kiroldegia betetzeko prest agertu dira.

Orioko musikaria bere ibilbideko 40 urteak batzen dituen zuzeneko diskoa aurkeztzen dabil, eta kontzertu arrakastatsuak ematen dabil non-nahi. Lehengo eta oraingo kantuak abestuko ditu kiroldegian.

Kiroldegiko ateak 22:00etan zabalduko dituzte, eta kontzertua 22:30ean hasiko dela iragarri dute.



Benito Lertxundik hainbat belaunalditako jarraitzaileak ditu.

ARRASATE PRESS

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Astroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaiztza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdialak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

BIHAR, ZAPATUA, 'BIDE EGINEZ' HERRI BATZARRA EGINGO DUTE
Bihar, zapatua, *Bide eginez* herri batzarra egingo dute kultura etxean. 15:30ean izango da, eta deia egin dute herritarrek esku hartzeraz anima daitezen.

BIHAR, ZAPATUA, PUNK KONTZERTUA GAZTETXEAN
Bihar, zapatua, Oñatiko Triskantzak eta Puñalada taldeak kontzertua egingo dute gaztetxean. 22:00etan izango da.

HILAREN 22AN, UMEENDAKO FILMA EMANGO DUTE
Datorren domekan, hilaren 22an, *Annaluise eta Anton* filma emango dute Ibarraundi museoan. Egin ohi duten moduan, emanaldia euskaraz izango da, eta interesatuek euro bat ordaindu beharko dute. Udaletik jakinarazi digute umeendako filmek oso harrera ona izaten dutela, eta batzate beste 60 lagunetik gora joaten direla filmak ikustera.

KZGUNEAREN ESKAINTZA DATOZEN ASTEETARAKO
KZguneak datozen asteetarako programazioaren berri eman digu. Gaur, egubakoitza, *News* gaia landu dute 09:00etatik 11:00etara; datorren egubakoitzean, hilaren 20an, *Guia Michelin*-ekin zelan bidaia-tu azalduko dute 11:00etatik 13:00etara bitartean; hilaren 27an, etxetik erosketak egiten erakutsiko dute 11:00etatik 13:00etara bitartean; eta otsailaren 3an, Flashget programa zelan erabili irakatsiko dute. Guztiak euskaraz izango dira.

Arrasateko Etxaluze baserriko erreminta guztiak Ibarraundira

IKER BARANDIARAN

Udalak eta Lorentxo Altube arrasatearrak hitzarmena egin dute Altubek Etxaluze baserriari daukan erakusketa iraunkorra Ibarraundi museoan eramateko. Arrasatearrak debalde utzi dizkio 245 pieza Udalarari. Laster egongo dira erakusgai museoan.

Lorentxo Altubek urte asko daromatza Arrasateko Etxaluze baserriari euskal tresna zaharrak biltzen eta musika tresnak egiten. Aspaldian baserria museo bilakatu zuen ia, eta bisita gidatuak egiten zizkien Arrasateko eta inguruetakoa ikasleei. Altubek asko ikasi du euskal kultura eta ohituren gainean, baita musika tresnen gainean ere, eta hori guztia ezagutzera emateko prest egoten da uneoro.

UDALAK BASERRIA BOTATZEA ERABAKI

Joan den urteko azaroan Arrasateko Udalak Etxaluze baserria botatzea erabaki zuen. Horren lekuan erretiratuena elkarte eta San Andresko auzotarrendako hainbat ekipamendu jarri gura ditu.

Horren ondorioz, Lorentxo Altubek, kezkatuta, berak egin dako bildumari irtenbidea ematen saiatu zen. Hainbat elkarrizketa egin ostean, Eskoriatzako Udalak hitzarmen bat egiteko eskaintza egin zion.

245 PIEZAREN LAGAPENA MUSU-TRUK

Lorentxo Altubek pozik hartu zuen Eskoriatzako Udalaren interesa, eta bildumako 245 pieza Udalarari lagatzeko hitzarmena sinatu zuen. Horren arabera, datozen 10 urteotan Udalak bilduma hori erabili ahal izango du, eta epe hori luzatzeko aukera adostu dute.



Lorentxo Altubek lan handia egin du azken urteotan bilduma hori egiteko.

AITOR LIZARRALDE

Arrasateko Etxaluze baserria botako dutela-eta, Altube saiatu da bildumari irtenbidea ematen

MUSIKA INSTRUMENTU BITXIAK

Altuberen bilduma oso bitxia da, baserrietan erabilitako erreminta ugari dauzka-eta. Horrez gain, Altubek berak egindako instrumentuak ere daude bilduma horretan. Orain dela urte asko semearendako txalaparta egin zuen, eta ordutik ehunka instrumentu sortu ditu. Leku askotatik joan dira umeak Etxaluze baserrira bere

Baserrietako erremintak eta musika instrumentuak ditu erakusketak

erakusketa ikusi, eta Altuberen azalpenak entzuteraz.

BERBALDIK ETA AZALPENAK EMAN

Altubek eta Udalak gura dutenean Lorentxok berak berbaldiak eta azalpenak emango ditu Ibarraundi museoan. Hala egingo dute bi aldeek hitzartzen dutenean. Dagoeneko bilduma Ibarraundira eraman dute.

Lurrak desjabetzeko prozedura hasi dute AHT egiteko asmoz

I.B.

Joan den urtearen bukaeran, Udalak eta herritarrek jakin zuten, Espainiako Buletinaren bitartez, Espainiako Sustapen Ministerioak AHT egiteko lurren desjabetze prozedura hasi duela. Hala, bihar, zapatua, bukatuko da alegazioak aurkezteko epea.

2005eko abenduaren 28an Espainiako Buletinaren bitartez eman zuten argitara AHT egiteko Eskoriatzako 18 lurjabe lurrak desjabetuko dizkietela. Horrez gain, buletinean jakinarazi zuten lurjabeek bihar arte, zapatua, dutela aukera horren

gaineko alegazioak aurkezteko. Espainiako Sustapen Ministerioak darama AHTren gaineko lanen ardura.

Izan ere, 2000n Espainiako Ingurumen Ministerioak onartutako proiektuaren arabera, Eskoriatzako hiru elizateetatik igaroko da AHT: Marin, Zarimutz eta Mazmelatik, hain zuzen ere. Eta hortik aurrera, tunelean sartuko da trena eta Armaion jarraituko du.

HERRITARRAK ETA UDALA HASERRE

Lur desjabetzeen kaltetutakoek, hau da, Marin, Zarimutz eta Mazmela elizateetako hainbat bizilagunek eta Udalak euren haserre agertu dute. Horrez gain, Espai-

niako Buletinean hamazortzi lurjabe zenbatu zituzten, baina Udalak uste du kaltetutakoak gehiago izango direla.

PROZEDURA ATZERATZEKO ESKATU

Kaltetutakoak haserre daude Sustapen Ministerioak ez duelako euren zuzenean jo. "Espainiako Buletinean argitara eman dute ia oharkabean, eta alegazio epea berehala bukatzen da. Ez da bidezkoa".

Bestalde, Udalak Sustapen Ministerioari eskatu dio desjabetzearen prozedura atzeratzeko, "Udalak proiektua jaso ez duela, desjabetze aktak akatsak dituelako eta gauzak ez dituztelako ondo egin", alkatearen esanetan.

LABUR

Udalaren etxebizitza bat salgai jarriko dute

Udalak erabaki du San Pedro kalean daukan etxebizitza bat salgai jartzea. Etxebizitza hori laugarren solairuan dago eta 80 metro koadro dauzka. Udalak erabaki du 145.500 eurotan saltzea.

Lehiaketa publikoan esku hartzeko, interesatuek aurretik 2.910 euroko bermea jarri beharko dute. Eskaera bikote batek eginez gero batasun hori egiaztatuko duten agiriak erakutsi beharko dituzte. Horrez gain, Udalak honako baldintzak jarri ditu: eskatzailea gutxienez 2003ko azarotik Eskoriatzako erroldatuta egotea; etxebizitza propiorik ez izatea; eta 15.000 eta 33.000 euro bitarteko irabaziak izatea, besteak beste. Informazio gehiago, udaletxean.

Dorleta berriro urbanizatzeko lanak adjudikatuta

Dorleta auzoa berriro urbanizatzeko lanak une honetan herrian egin beharreko garrantzitsuenetako batzuk dira. Behin proiektua aurkeztu ostean alegazio epea zabaldu zuten, eta une honetan onartuta dago.

Hortaz, lanak adjudikatze prozesua abian jarri zuten. Hiru enpresek aurkeztu zituzten aurrekontuak: Fonorte, Amaral eta Muriassek, hain zuzen ere.

Udalak Fonorteri eman zion lan hori, eta 1.731.859 eurotako aurrekontua hitzartu zuten. Lanak otsailean hasi beharko dira, eta 8 bat hilabetetan bukatuta egon beharko dira.

Tranbiaren gaineko erakusketa, ikusgai kultura etxean

Udalak tranbiaren gaineko erakusketa ikusgai jarri du kultura etxean. Eusko Jaur-laritzak utzi dizkio panelak eta bestelakoak Udalarari, eta horrek herritarrei erakutsi gura izan dizkie.

Astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago zabalik erakusketa.

Hilaren 18ra arte erakusketako informazioa aztertu ahal izango da. Hortik aurrera, herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote tranbiaren proiektuari. Horretarako epe jakin bat izango dute.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2006ko urtarrilaren 13a / 179. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

AHT egiteko desjabetze prozesua abiarazi dute

UBANE MADERA

Joan den abenduaren 28an argitaratu zituzten Arabako Buletinean, Lastertasun Handiko Trena egiteko Aramaion desjabetu beharreko lursailen zerrenda. Guztira, 12 lurjaberen lurrak hartuko dituzte; horietatik zortzi dira herrikoak. Eurei oraindik ez diete abisurik eman.


Eta abisurik ez emateaz gainera, 15 eguneko epea eman diete desjabetze horiei alegazioak aurkezteko. Horrek esan nahi du, bihar, zapatua bukatzen dela epe hori.

Bestelakoan artean, Bolinburu baserriko lursailak desjabetu behar ditu Madrilgo gobernuko Sustapen Ministerioak. Bolinburuko Luis Mari Herizek esan digunez eurek ez dute inolako jakinarazpen ofizialik jaso. Duten informazio guztia Aramaio Udalari esker lortu dutela kontatu digu eta gaineratu digu oso kezkatuta daudela. "UGA sindikatukoekin berbetan gabiltza, ea haiek laguntzen dituzten, baina ez dakigu nondik nora jo. Kontua zera da: zehatz-mehatz ez dakigula zein eragin izango duen trenak gure lurretan, ez digutelako esan, eta alegazioak horren arabera egin behar direla. Beraz, ez dakigu nondik heldu gaiari. Azpitik dabilta haiek lanean (Madrilgoak), guri informazioa behar bezala eman barik".

Hala eta guztiz ere, alegazioak aurkezten ahaleginduko direla esan digu. Eta kontatu digu Aramaio Udalarekin batzarrak egin ibili direla (oraingo eguaztenean egin dute azkena).

UDALAK ERE AURKEZTUKO DITU

Bestalde, Udalak jakinarazi digu eurek ere aurkeztuko dituztela alegazioak. Honako arrazoiengatik aurkeztu behar dituzte: informazioa falta delako; trenak lursail asko zatitu egingo dituelako eta jakin nahi dutelako zela utziko dituzten sail horietarako sarbideak; jakin nahi dutelako ea baden AHTk kaltetuko duen ur-hornidurarik eta jakin nahi dutelako zela geratuko diren trenaren ibilbideak zeharkatuko dituen azpiegiturak (argindarra, ura...).



Udal ordezkariak eta desjabetzeak jasango dituzte lurjabeak eguaztenean batzartu ziren.

Horrez gainera, Udalak alegazioak aprobetxatuko ditu salatzen Lastertasun Handiko Trenak Aramaion izango duen eragina dezent handia izango dela. Halaber, Udaletik jakinarazi digute datoren urtarrilaren 24an hasiko direla desjabetu behar dituzten lurren okupazio aktak eginen.

OINARRIZKO PROIEKTUA ONARTU DUTE

Arabako Buletinean argitaratutako informazioaren arabera, orain, Lastertasun Handiko Trenaren lanen lehenengo faseari dagozkien oinarrizko proiektua onartu dute. Eta behin oinarrizko proiektua onartu eta gero, lurrak desjabetzen has daiteke Madrilgo gobernua, hala dio-eta 2003an onartutako lege batek.

Oinarrizko proiektuaren lehen fase horretan eraikiko

dute Aramaio, Eskoriatza eta Arrasateko ibilbide zatia.

IBILBIDEA ALDATU DUTE

Aramaiori dagokionez, Lastertasun Handiko Trenaren ibilbidea aldatu egin dute. Zabolatik Untzillara doan bidea baino 500 bat metro beherago aterako da tuneletik (Eskoriatzatik dator); tarte horretan, Lugartei eta Bolinburu baserrien artean, pareta artean joango da trena, tunel ireki moduko baten eta gero zubi batetik abiatuko da Udalatxerantz. Lehen go ibilbidearekin alderatuta (orain hiru bat urte-edo aurkeztu zutena), zubi hori gorago ipini dute orain. Lehen, Kataia ingurutik pasatu behar zen; orain, berriz, gorago doa eta esaterako, Cuatrovientos baserriaren azpitik pasako da, tunelean.

Bihar, zapatua, bukatuko da desjabetzei alegazioak aurkezteko epea

Lurjabeak eta Udalak aurkeztu behar dizkiote alegazioak oinarrizko proiektuari

Dirulaguntzak eskatzeko deia egin du Diputazioak

U.M.

Gizarte Zerbitzuekin lotuta lan egiten duten elkarteek dirulaguntza eska dezakete Diputazioan, euren jardueretarako. Hori egiteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da. Irabazi asmo bako elkartei eta fundazioei zuzendutako deialdia da. Hala jakinarazi digu Udalak.

Gizarte Zerbitzuekin lotuta, pertsonak edo gizataldeak gizarteratzea eta haiei laguntza soziala ematen dieten elkarte edo fundazioek eska ditzakete laguntza horiek; hain zuzen ere, honako zereginetarako bideratu behar dira laguntzok: zentroen eta zerbitzuen mantentze-lanak egi-

teko; pertsona nagusiak, elbarritasun fisiko, psikiko eta sensoriala duten pertsonak, emakumeak eta gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden gizataldeak laguntzeko; gizarteratzeko programak lantzeko; Arabako landa-eremuan komunitatearen garapena bultzatzeko eta Arabako landa-eremuan drogen mendekotasunari aurre hartzeko.

EPEA ETA LEKUA

Lehen esandako moduan, datoren urtarrilaren 31n bukatuko da eskaerak aurkezteko epea. Dirulaguntzok Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskatu behar dira (Diputazio kalea 13, Gasteiz).



Udalaren eta Koadrilaren egutegiak

Aramaio Udalak eta Zuiako Koadrilak 2006rako egutegiak argitaratu dituzte. Udalaren egutegiaren kasuan, Aramaio argazkiak erabili dituzte, aramaioarrek egindakoak. Koadrilako egutegian ere Aramaio azaltzeaz gainera, barruan aramaioarrek egindako zenbait argazki azaltzen dira. Esaterako, egutegiaren azala Itsaso Lopez de Bergarak ateratako argazkia da. /U.M.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuia Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Iaztxoa duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUETAKO ZINEMA
Gabonetako zinema-saio ugarien ostean, atsedenditxoa hartu eta datozen bi barikuetan ez dute zinema emanaldirik egingo.

KZGUNEARREN HITZORDUA
Urtarrilari dagokion hitzorduen artean, oraingo asteko astelehenean (hilak 9) izan da KZguneko tutore Aitor Madrid Aramaion. Hark jakinarazi digunez, bi aste barru etorriko da berriro, urtarrilaren 23an. 09:00etatik 13:00ak arte izango da KZgunean. Eta 11:00etatik 13:00etara *Asteburu bat Euskal Herrian* izeneko mintegia egingo du. Parte hartzeko interesa duenak joan besterik ez du, doako zerbitzua eskaintzen du-eta KZgunearak.

BERTSO SAIO ARRAKASTATSUA
Joan den astean izandako bertso-saioak arrakasta handia izan zuela kontatu digu Andere Arriolabengoa bertsolariak. Esan digunez, aretoa goraino bete zen, "jendeak ondo pasatu" zuela ere esan digu eta, batez ere, ofizioek eragin zituztela ikusleen barreak.


Datorren egunean txotx egingo dute Iturrietan, sagardo gozoarekin

U.M.

Datorren egunean, hilak 19, 20:00etarako ipini dute hitzordua aurtengo sagardo denboraldia estreinatzeko. Eta gonbidatu bereziak zabalduko du kupela: Alberto Iñurrategi mendizaleak. Iturrietakoek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ekitaldira.

"Sagardo berria izango dugu datorren egunean, aurten egindakoa. Gozotxo izango da, oraindik ez dago-eta guztiz eginda; poliki-poliki joango da garrazten". Hala adierazi digu Iturrieta sagardotegiko ugazaba berriak, Aitor Etxabe arrasatearrak. Hark kontatu digunez, Iturrietako sagardoa ez da bertan egindakoa izango, kanpotik ekarriko dute. Eta denboraldiak aurrera egiten duen neurrian, gehien hobetu den sagardoa ekarriko dutela Iturrietara.

Hala, sagardo berri hori probatzeko aukera egunean zabalduko dute Arraga auzoan, 20:00etan. Esandako moduan,



Aurten, Alberto Iñurrategi mendizaleak egingo du txotx Iturrietan.

Alberto Iñurrategik egingo du txotx. Trikitilariak izango dira hari laguntzen. "Oso giro polita izango da eta gonbidatu egin nahi ditut herritarrak".

TXAKOLINA ERE BAI
Ugazaba berriak izateaz gainera, berritasun gehiago ere izango ditu hemendik aurrera Iturrieta sagardotegiak. Besteak beste,

"Lanbroa, lainopea eta zirimiria egiten ditu... Ez dut uste eguraldia aldatu denik"

Aitor Etxabek kontatu digu sagardotegiko kupel bat txakolina gordetzeko erabiliko duela. Beraz, datorren egunean, sagardoarekin ez ezik, txakolinarekin ere egin ahal izango da txotx. Eta probatu beharreko txakolina dela esan digu: "Oso-oso gozoa" atera da.

ERRETEGI IZAERA
Eta edatekoaz gainera, jatekoa ere emango dute Iturrieta sagardotegian, jakina: "Hemendik aurrera erretegi moduan lan egitea da gure asmoa". Beraz, edozein sagardotegitan ohikoa izaten den menua dastatu ahal izango da, besteak beste Aramaiokoan.

Bainuetxeetara joateko eskaerak egiteko epea

U.M.

Gizarte Segurantzako pentsiodunendako oharra helarazi digu Udalak, bainuetxeetara joateko eskaerak egiteko. Hala, otsailetik abuztura bitartean joan nahi duenak urtarrilaren 31ra arteko epea du eskaerak egiteko.

Bestalde, irailetik abendura bitarteko hilabeteetan joan nahi dutenek, maiatzaren 16ra arteko epea izango dute eskaerak egiteko.

Gizarte Segurantzako pentsioduneri zuzendutako oharra da hauxe, baina badira zenbait baldintza. Hala, erretiroa edo ezin-

tasuna dela-eta pentsiodun direnek baldintza barik joan daitezke bainuetxetara. Alarguntza edo bestelakoengatik pentsiodun direnek, berriz, 60 urtetik gora izan beharko dute.

ERAMAN BEHARREKOA
Honako agiriak aurkeztu behar dituzte pentsiodunek eskaerak egiteko: nortasun agiriaren fotokopia, hilean jasotzen duen pentsioaren zenbateko zehatza, Gizarte Segurantzako afiliatu zenbakia eta medikuaren txostena. Gizarte-langileak udaletxean duen bulegoan egin behar dituzte eskaerak.



Pentsiodunek egin ditzakete bainuetxeetara joateko eskaerak.

Datorren astean dator basogintzako teknikaria

U.M.

Arabako Basogintza Elkarteak zerbitzua eskainiko du Aramaion. Oraingoan, hilean behin pertsona bat joango da Udalera. Urtarrilari dagokionez, datorren egunean, hilak 19 hasiko da lanean. Besteak beste, aholkularitza zerbitzua emango dute eta dirulaguntzak tramitatu dituzte.

Baso-jabeei zuzendutako zerbitzua da Arabako Basogintza Elkarteak eskainiko duena. Lehen esandako moduan, hilean behin pertsona bat udaletxean izango da, 09:30etik 15:00ak arte. Hain zuzen ere, Alonsotegiko (Bizkaia) Eduardo Rodriguez, baso ingeniari teknikaria arduratuko da Aramaiokoaz. Hark kontatu digu batez ere basoekin lotutako dirulaguntzak tramitatu dituztela elkarrean eta basoekin lotutako aholkularitza lanak egin; esan digu, baita ere, basoen balorazioak, tasazioak... ere egiten dituztela, basoak saltzeko edo adituen txostenetarako, esaterako.

DIRULAGUNTZAK, MARTXORA ARTE
Dirulaguntzei dagokienez, berriz, haiek eskatzeko epea datorren martxoan bukatuko da. Eduardo Rodriguezek jakinarazi digu zuhaitz landakete-

tarako ematen dituztela dirulaguntzok (pinuen, izeien, haritzaren, pagoen... landaketetarako) eta baita ere basoen mantenturako (garbiketa lanak egiteko, inausketak, bakantzeak...). Hala, laguntzok eskatzeko, udaletxean izango den teknikariarengana joatea besterik ez dago, hark egingo ditu-eta tramite guztiak. Besteak beste, honako dokumentazioa eraman beharko da: partzela katastralak eta katastroaren planoak (udaletxean eskatu behar dira), basoaren jabearen edo jabeen nortasun agiriaren fotokopia eta dirulaguntza sartzeko kontu korrante zenbaki bat. Dena den, informazio gehiago behar izanez gero, basogintza elkarteko teknikariari eska dakiokete datorren astean bertan edo honako telefonon: 605 71 07 06 (Eduardo Rodriguez).

AMURRIORA JOAN BEHARREAN
Arabako Basogintzak Aramaion zerbitzua ipintzearen arrazoia, berriz, aramaiorrei zerbitzua errazago eskaintzeko dela esan digu Eduardo Rodriguezek: "Arabako elkarrean Amurrioren du egoitza eta Aramaioko asko hara joaten ziren, baina urruti geratzen zaien eta erabaki dugu Aramaiora etortzea. Gainera, batzuk elkarteko bazkide egin nahi dute".

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2006eko urtarrilaren 13a / 33. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelaigoiena.com • Lege gordailua: SS483/05

Gabonetako Pilota Txapelketan Agarre bikotea izan zen onena

XABIER URTZELAI

Abenduaren 29an jokatu zuten Leintz Gatzagako Gabonetako Pilota Txapelketa, eta baita Labidea Txapelketa ere, Arrasateko eta Gatzagako gaztetxoek jokatu zutena. Jende mordo gerturatu zen pilota jaialdira.

16:00etan hasi zuten pilota jaialdia, eta pilotalekuko giroa epeldu guran, aire librean dagoen aldea estali egin zuten, olanekin. Hori gutxi balitz, antolatzaileak txokolate eta salda beroa banatzen ibili ziren pilotalekura gerturatu zirenei. Eta ez ziren gutxi izan, lehenengo norgehiagoketan Arrasateko eta Gatzagako pilotariak izan ziren-eta aurrez aurre, gurasoen animuek lagunduta.

Labideako Txapelketan Arrasateko bikoteak indartsuago ibili ziren. Hala, gatzagarrek aurten sortu dute taldetxo, eta entrenatzen jarraitu beharko dute. Guztira zazpi norgehiagoka jokatu zituzten, eta horietako sei arrasatearrek irabazi zituzten. Zazpigarren partiduan, berriz, Lur eta Ibai bikote gatzagarrek Goitia eta Arana hartu zuten mendean. Orduan animatu ziren gatzagako zaleak, herriko bikote batek irabazi zuela ikusita.

Txapelketa horrek izan duen arrakasta ikusita Jose Inazio



GUREL

Labidea Txapelketan esku hartu zuten pilotari gazteak, txapelketa eta gero.

Belokik aurreratu digu lagunarteko hiruko txapelketa antolatu gura dutela Arrasateko eta Otxandio pilotariekin batera. Oraindik ez dakite noiz jokatuko duten, Gatzagako pilotalekuan eguraldia erabakigarria da-eta.

AGARRE BIKOTEA, ONENA

Eta gaztetxoek txapelketa amaitu zenean jokatu zituzten Gatzagako Gabonetako Txapelketako finalerdiak eta finala. Hala, Belokik eta Isturitzek egin zuten aurrera Txarrantzaren eta Iñakiren kontra, eta beste finaler-

dian Agarre bikotea sailkatu zen finalerako.

Txapelketan zehar azken bikote horrek erakutsi zuen gaintzekoek baino maila hobea zuela, batez ere atzelariak erakutsitako jokoagatik. Hala, finalen Beloki eta Isturitzek ezin izan zuten gauza handirik egin, hasieratik markagailuan urrundu eta partidua amaitu arte Agarre bikoteak ez zuelako tregoririk eman (22-9).

Horrekin batera, Agarre bikoteko Heriz atzelariari eman zioten pilotari onenaren saria.

'Zure seme-alaba babestu' izeneko ikastaroa KZgunean

X.U.

Astelehenean, hilak 16, Zure seme-alaba babestu izeneko ikastaroa emango dute KZgunean. Gurasoei zuzendutako ikastaroa da, gaztetxoak edozein webgunetan ibil ez daitezkeen neurriak hartzeko.

Erraztasun eta onura galantak ematen ditu Internetek, baina horrekin batera, badira webgunen batzuk gaztetxoendako proposak ez direnak. Hala, Aitor Madrid KZguneko arduradunak esan digu asteleheneko ikastaroa Interneten dauden edukiak neurtzeko baliagarria izango dela. Hasteko, Interneteko Erabil-

tzaileen Espainiako Elkarrekin gurasoei ematen dizkieten zenbait gomendio azalduko dituzte ikastaroan. Horrekin batera, nabigatzaileak aukera ematen du Interneten zein webgunen bisitatu ditugun jakiteko, bisitatuako webgunen artxibo historikoa gordetzen duelako. Eta ikastaroan erakutsiko dute hori nola erabili.

Bistan da polizia lanetan ibili gura duenak izango duela horretarako aukera, baina proposatzen da eduki-aholkulariak ematen duen zerbitzua. Aholkulari horrek Interneteko webgunetako eduki-motak kontrolatuko ditu. Astelehenean, 11:00etatik 12:00etara izango da ikastaroa.



GOIENKARIA

Gurasoek eduki erotikoa edo pornografikoko webgunek zaindu gura izaten dituzte.

Gabonetan jostailuak batuta, sailkatu egingo dituzte orain

X.U.

Gabonetan Saharakoei laguntzeko hainbat egitasmo izan dituzte abian. Batetik, janari bilketa, eta bestetik, jostailu bilketa. Janaria dagoeneko eraman dute, eta jostailuen txanda izango da orain.

Urtarrilaren 4an eraman zuten Arrasatera Gatzagan jasotako janari eta bestelako produktuak, eta dagoeneko Sahararako bide-

an izango dira. Alde horretatik, Labideako Amaia Olabek adiztera eman du kanpaina arrakastatsua izan direla, eta pozik daudela.

JOSTAILUEN SAILKAPENA

Eta janariarekin batera, Saharako haurrek zerekin jolastu izan dezaten, Olentzerok aurten lan bikoitza izan du: Gatzagako gaztetxoek jostailu berriak ekarri, eta dagoeneko erabiltzen ez dituztenak batu, gero Saharara erama-

teko. Opari mordoxka batu ditu Olentzerok Labidean, baina orain jostailu horiek sailkatu egin behar dira. Labideatik esan digute, printzipioz, guztiak bidaliko dituztela hara, baina kontuan izan behar da, adibidez, pilak behar dituzten jostailuek erabilera epe mugatua izango dutela; hau da, pilak amaitzen direnean, akabo.

Horrekin batera, didaktikoak diren ala ez, zein adinetarako proposak diren... horiek guztiak izango dituzte kontutan.



GOIENKARIA

Gasteizera bidali aurretik, jostailuak sailkatu egingo dituzte orain.

Presta
zaitez
laser
depilaziorako.

LASER DEPILAZIOA

- Besapeak
- Iztaiak
- Aurpegia (bibotea, patillak)
- Sorbalda
- Hankak
- Besoak


Udan gorputzak eskertu egingo dizu.

Gemes
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABAETA

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



BERRIKUNTZAK:

- **PROGRAMAZIOA**
Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)
- **INFORMATIBOAK**
Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarriketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



EZKUTU
TABERNA

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01



TABERNA

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34



HAIZEA taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60



EXPRESS TABERNA

Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43



TABERNA-BERRI
JATETXEA

Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67



OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 7 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67



BASABE
Menuak eta afariak


Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84



Dorleta

Loteria primitiboak
eta kintelak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.: 943 79 94 15 ARETXABALETA



HIRUSTA JATETXEA

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Orly
aretxabaleta

Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33



Gurea
TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64



ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



Matikua jatetxea

Azarta auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

